


XUKA

uztarria

Azpeitiko herri aldizkaria



SANINAZIYUETAN LANEAN

Batzuek lanari eta besteek festei ekingo diete txupinazoa bota ondoren

gazteria

Gaztetxe ohia okupatu zuten herriko gazteek

argazkilaritza

Joxe Ramon Larrañaga sanferminetan



elkarrizketa

Jaime Amenabar: «Nei beti gustau izan ziten kantatzie»

Mikelats AEK euskaltegia

Urbitarte 2, 1A

Tnoa: 943 151089

Aukera paregabeari



- Euskalduntze ikastaroak
- Alfabetatze 1 eta 2 mailak
- EGA ikastaroak
- Irakasleen hizkuntz eskakizunak: HE1 eta HE2
- Euskaltzaindiako arauen inguruko ikastaro laburrak: 100 ordu
- Irakurzaletasuna lantzeko 50 orduko ikastaroak
- Gurasoentzat ikastaro berezituak
- Merkatariarentzat eskeintza berezia

æk

izena eman

MATRIKULAZIO EPEA: IRAILAK 28

“Nun eingoiau-eingoñau auzitegiyen eo anbulatoyun?
Ba, biyetan! Euskaraz ba!» (Azpeitiko EHE)

ale honetan...

Oharra: hurrengo alea ez da irail hasieran aterako, bukaera aldera baizik

4-5-6: Joxe Luix Aizpuru, Xabier Alday eta Elkarriko tailerrekoen iritzia, Salegiren marrazkia...

7: *Bai Euskal Herriari herri ekimenak sinadurak biltzeari ekin dio egunotan*

8-9: Udala. *Azpeitiko Jaiak* liburuaren aurkezpena eta herri festa izarraitzen

12-13-14-15:

Joxe Ramon Larrañaga, entzierroko argazkiak ateratzen



16-17: Oporrak. **Azpeitiarrak eguzki gosez oporretan Mediterraneo kostaldean**

18-19-20-21:

Saninaziyuek. Batzuek lan eta besteak jai, denak festagiroman



22-23: **Literatura. Ion Pozoren ipuina. AGZ?! lehiaketan saritua**

26-27-28: Herriko Gazte Mugimenduak gaztetxe ohia okupatu zuen uztailak 15ean



34: Elkarrizketa. Jaime Amenabar: «Etxien oso gutxitan kantatzeñet»

AKUILUA

Azpeitia,
sasikumeak
eta santuak



Fernando Morillo

Idazlea


Kostaldekoko trenean izan zen. Egundoko etorria zuen agure bat eseri zen nire alboan eta hor aritu ginen solasean. Azpeitiarra nintzela jakitean, irribarre bihurria egin zuen. «Azpeitiarrak sasikumeak zarete». Hara agurearekin. Zera baino lasaiago esan zuen gainera. Eta gero diote gazteak lotsa-gabeak garela. «Zuen patroia, *potroia* izan zen lehenbizi. Gaztetan, hamaika parrandez gain, herri inguruko neska gehienekin jardun zuen». Eta esan gabe doa zertan. Azpeitiar asko santuaren ondorengo sasikoak izango lirateke.

Jakina. Horrek misterio ugari argitzen zituen. Inazioren odolak santu bokazioa txertatu du azpeitiarrongan. Horregatik izango gara herri mozkorrenetako. Hasteko, parranda eta *haragia* barra-barra, eta gero, denborarekin, santu. Gero, ordea. Oraingo, nahikoa dugu lehenbizikoekin. Eta urte askotarako, espero.

Ondo pasa.

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

KAITO TELEBISTA



81 53 35

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza 4, 2. ezkerria;
Telefonoa: 150358. Faxe: bera
Posta kutxa: 227, Azpeitia
Publizitatea: Tel: 150358
Posta elektronikoa:
uztarria@topagunea.com
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.500 ale
Lege gordailua: AS / 6 / 08255 / 1999

UZTARRIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizuna

amuko Zubitik



'Ghostbusters'

Joxe Luix Aizpuru



Saninaziyuei buruz idazteko asmoa banuen ere, beste gertakari batek erakarri zuen nire atentzioa. Egutegiak uztaile erdia zakarrontzira botata zuen eta jai usaina gero eta nabarmenagoa zen. Festen argazki-egitarau hiper garestia ere (lau milioi pezeta), gure etxeetara iristen hasia zen. Halako batean, tupustean, albiste batek herriko 'bake soziala' kulunkan jarri du. Gaztetxe zaharraren okupazioa dugula. Izpiritu maltzur guztiak biltzen dituen lokala ireki dutela berriro. Aintzinako mamuak atera

dira iluntasunetik, uztaileko eguzki beroaz gozatzeko asmoz; urte ugari egonak dira harresiaren beste aldean, horma lodia hautsi ezinik.

Baina agintariak ez daude barkatzeko. Izurritea herri gutzira hedatu aurretik neurriak hartu behar dituzte, eta zer hoberik, mamuehiztariei deitzea baino? Bi egun igaro ostean mamuetxea argitzen hasi da, baina mamuehiztari txapel gorriek ez dute argitasun bera ikusten. Mamuak zapata kaxoi ilunean gorde nahi dituzte berriro, eta oraingoan, betirako 'lurperatu'. Ez dute lan erraza,

ordea. Zementoak eta blokeak, jadanik, ez dute balio: zirrikatu asko uzten dute. Burnia ere alferrikakoa da: eguzkiaren beroarekin gurina bezain biguina bihurtzen da. Mamuen maltzurkeriaz ohartarazi nahi dituzte herriko gazteak, baina hauek maite dituztela erakutsi dute. Ez dute langintza erraza gure *ghostbusters*-ek. Garai bateko xextrak bazterrean utzi, eta elkarrekin aritzea erabaki dute Erdi Kale beheko mamu maitaleek. Eta denok dakigu lanerako gogoia dagoenean, ez dagoela gairitu ezin den hesi edo blokerik.

gutunak

Nekane Larrañaga eta adierazpen askatasuna

Gaztetxeko okupazioaren inguruko balorazioa egiteko eman genuen prentsaurrekoan Kaito telebista falta zen. Nekane Larrañaga Azpeitiko EA-ko zinegotziak ezarritako debekuaren ondorioz, udalaren mezua kuestionatzen duten mezuak ez zabaltzeko agindua jaso du orain gutxi Kaito Telebistak.

Azpeitiko gazte mugimenduak jasan behar izan duen zentsura sozial honen aurrean zenbait galdera plazaratu nahi genituzke:

- Adierazpen askatasunaren alde al dago Nekane?
- Zer da Nekanerentzat adierazpen askatasuna?

- Zer esango dugunaren beldur da Nekane?

- Zergatik geratu da bera ixilik azken gertakariaren aurrean? Eta zergatik ixildu nahi izan gaitu besteok?

- Gu lokaletik bidalita eta gure ahotsa ixilduta arazoa konponduko dela uste al du/dute?

Eneko Iburguren
eta Iñaki Azkue
Azpeitiko Gazte
Mugimenduaren
izenean

Azpeitiko jaiak liburua dela eta

Erdia espainolez dago idatzia. Ondo. Azpeitiarrak gehiago eta hobeto irakurriko dugu. Horretarako, dena espainolez idatzi, ezta?

Iñaki Odriozola

datua

Eusko Jaurlaritzak euskal komunikabideetara 622.000.000 pezetako dirulaguntza zuzenduko du aurten.

Azpeitiko festak

Denok dakigu Azpeitiko festak, saninaziyuek, oso festa tradizionalak direla, oso ofizialak, batere herrikoiak ez. Horretan hainbat arrazoik eragingo zuten bere garaian, baina ez naiz hortik joango. Galdera da: egiten al da ezer herriarrendandik gertuago? Udalak, azpeitiarron interesetan lan egiten duen gestio taldeak, egin al du ezer festa herrikoia, karriabalen antzera, egiteko?

Eta erantzuna da: ez. Eta orduan, hurrengo galdera da: zergatik? Eta erantzuna: ez dutelako nahi; kanpora begirako festak direlako, eta kanpora begira itxura zaindu bai—programatik hasi eta plazako emanaldietaraino—, baina hortik aurrera gutxi egiten dutelako.

Erakunde ofizial batek bere bakardadean antolatutako zera batek herriaren *apego* handia lortzea ez da erreza, zaila dela esango nuke nik. Horregatik bultzatu beharko litzateke herritarren antolaketak lana; baina ez azkenengo momentuan, programari *bisto buenoa* emateko bakarrik, hasiera-hasieratik baizik. Mami az gain barrukoa zaintzen ez bada...

Jon Aramendi

Uztarriaren oharra: gutunak, ahal dela, motzak izan behar dute, bestela UZTARRIAK mozteko ahalmena izango du. Kartak bidali hona: UZTARRIA, 227 posta kutxa, Azpeitia. Edo, UZTARRIA, Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre. Edo, posta elektronikoko honetara: uztarria@topagunea.com

azketako ura



Elosiaga, urrutira joan gabe

Xabier Albas



Bizitza lekuz aldatzen doa urteekin; jada ez gara oroitzen aitzina Zelatun kokagune estrategikoa zela Gipuzkoan: berebiziko garrantzia zuen pasagunea izateaz gain, Urgul eta Itsasondoko gainetan pizten ziren suekin itsasoko trafikoa gidatzen zen erromatarren garaian. Lehenbizikoenetakoa izango zuten erromatarrek bertan jaso zuten porrota. Historiak, norbanako zein herri gisa, iraganeko hutsak errepikatze ez aldeira adibide ugari eskaintzen dizkigu. Historiari heldu ahal izateko, ordea, aurrena bildu eta gorde egin behar,

eta gure herrian bederen, Imanol Eliasen jardunaz gain, ez gara kezkatu gure ondarea jasotzen. Elosiaga bezalako auzoak ditut adibide. Kezkagarria litzateke norbaitek auzo hau ezagutu ez edo soilik bertako sagardotegiarekin nahastuko balu. Nabarmen behera egin duten baserrien izenekin fiija zaitezte: zer esan nahi ote du mendi tartean ola kutsu industrialeko atzizkia duen baserri-izenak aurkitzeak; edo zaharrek entzun nahi dutenei kontatzen dizkieten txondorren zeremonialak; Markesko baserriaren izena eta kokagunearen bitxia, *cromlech* edo dolme-

nen antza izugarria zuten monumentu jada desagertuak, edo zenbait baserrietarako bideak erromatarren galtzadekin duen antzak. Zer pentsatua ematen du Akamendi izenak —zer akabatzen ote zuten mendi hartan?—. Makina bat sekretu gordetzen dizkigu oraindik herriko errejistro zibilak. Esaterako, orain anbulategia den aitzinako espetxean egondako bisitari ilustreren zerrenda. Zer pentsatua ematen du, bai: beharbada, konturatu gabe, gauzak oker egiten ari garela, erantzuna muturren aurrean genuelarik.

Ondo pasa Saninazyuek!

otSO beltZ

Andoni Salegi



gaia emanda

Saninazyuek

Irakurle ez dakit aurrez badakizun oporrak eta jaiak nola datozkizun. Zezen, frontoi, taberna, zenbat ikuskizun! Ea patrikak ondo erantzuten dizun.

Ur fresko faltan gaude gure iturrian tuberiak bidaude era bihurrian. Batzuk mostradorea ez dute urrian; gonbidatu ditzagun al dugun neurrian.

Anjel Larrañaga

Bakegintzaz Azpeitian zer?

Herri eta Udalen ekarpena bakearen eraikuntzan izeneko proposamen-txostena Euskal Herriko udalerrietan hedatzen aritu da *elkarri* iragan udazketetik. Bertako eduki guztia esaldi bakan batzuetara laburbiltzea nekeza den arren, horratx zenbait zertzelada: «Nazioarteko esperientzien eta hainbat teoriko-adituren arabera, bake-prozesuak nahitaez kupulan abiarazten dira; arrakastatsuak izateko ordea, ezinbestekoa zaie masa kritikoa irabazi eta gizarte-partaidetza lortzea(...) zentzu horretan, udalek, herritarrengandik hurbilen dauden instituzioak izanik, paper garrantzitsua joko dezakete bizikidetzaren berreraikitzen eta adiskidetzakultura sendotzen».

Horrela, *bake-prozesua udalerrira ekarri eta udalerrira bake-prozesura eramatearen* ildotik, hainbat ekimen proposatzen zaizkio udal bakoitzari: alor honetarako udal batzorde bat eratzea, gatazkak eta indarkeriak kaltetutakoekin (biktimekin) edota presoekin, erbesteratuekin nahiz euren senitartekoekin herrian zernolako lana burutu ote daitekeen ikertzea, bake-prozesuaz eztabaidatzeko foro iraunkor bat osatzea, urtean behin edota irizten den maiztasunez bake-topaketak edo jardunaldiak eratzea eta abar.

Bada, nazio mailako egitasmo honek Azpeitian ere bere isladatxoak izan zezan gogotik saiatu arren, porrot egin dugu



nabarmenki. Izan ere, agindu zitzaigun bezala, zinegotzitalde bakoitzari hamar minutuko hitzordu eskabidea egin genion arren, EHkoarekin soilik bildu ahal izan ginen. EAren udal ordezkarien ezetza jaso ostean, alderdi honen *juntakoekin* elkarriketatzeko modua aurkitu genuen. Bi bilerak positiboki baloratu genituen. Dena den, hausnarketarako denbora behar zutela adierazi ziguten. EAJrekin, tamalez, ez dugu ezer lortu; n. saiakeran, *kamikaze* gisa arituz, «lhauteiak ondoren» alderdiaren eta zinegotzien bilera bateratu batean hartuko gintuztela hitzeman zitzaigun, baina... gaur arte. Udal ordezkariarik ez izan arren, PPri eta PSE-EEri ere proposamena azaldu ahal izan diegu.

Hilabete-andana luzea iragan delarik, amaitutzat jo dugu ekimena honenbestez. Azkoitian adibidez, alderdi guztiekin egon gara eta egitasmo hau guztia, jada eratu daukaten Giza Eskubideen batzordetik bidera dezaketela adierazi digute. Hemen ez gara gai izan eta tira, kiroltasun osoz

onartzen dugu. Ika-mika antzuek ez garamatzate inora.

Dena den, itxurakerietarako ere inor ez gaude eta gure zinezko bi sentipen adierazi nahi genituzke:

1. Maiz erantzun gisa iradokitzen zaigun udalgintza eta politika-bakegintza erabat bereiztu behar itsu hori *perversoa* iruditzen zaigu errotik.

2. Herri honetako giza talde bati samin handia eragin zaigu. Berrogeita hamar herritarren (*elkarri*ko diru-emaile, militante, laguntzaile edota gizarte mugimendu honetako kide izan gabe ere, *bakeforum* ohian aktiboki partaide izan ziren zenbaitzuren) izenean egindako hitzordutxo baten eskakizunaren aurrean, zortzi hilabetetan uzkur? Ez dugu uste gure herri ordezkariak ministroen agenda dutenik ere. Halaber, alkateari, San Inazioetako egitarauan igortzen digun txartel pertsonalarekin joan beharko gaitaizkio hurrena.

Mespretxu adierazpiderik biribilena, ez bairik gabe, aintzat hartu ere ez egitea izaten da eta —biktimismo merkerik gabe— horixe egin zaigu. Proposamenari gero ezetz erantzungo bazaio ere, gutxienez, aurrena, entzun (!) egiten da eta ez muzin. Horrelakorik merezi izateko, ez gara jabetzen zer arraio egin ote dugun. Areago orain arteko harremanak tatxarik gabekoak izan direnean.

Zuzen ala oker, asmatuz edo ez, baina beren patrikatik dirua jarriz, denbora musutruk eskainiz, herrigintzan —edozein alorretan— zerbaitetan saiatzen ari den inori ez zaio horrelakorik egiten. Ezta talderik apalenari ere! Inori ez.

BEHARRA

Bake-prozesuei ezinbestekoa zaie masa kritikoa irabazi eta gizarte partaidetza lortzea

BITARTEKOAK

Udalek paper garrantzitsua joko dezakete bizikidetzaren berreraikitzen eta adiskidetzakultura sendotzen

ERANTZUNA

Mespretxu adierazpiderik biribilena aintzat hartu/entzun ere ez egitea izaten da eta horixe egin zaigu

**Aitor Azpillaga
Aitor Karrera**

*elkarri*ren Azpeitiko tailerkideak

Euskal nortasunaren alde sinadurak biltzen herrian

Udalbiltzari egingo zaion eskakizunerako sinadurak biltzen hasi dira



Plazan sinadurak biltzen.

N. URANGA

► **‘Herrian Bai, Euskal Herriari’ ekimena habian jarri da ► Bildutako sinadurerekin Udalbiltzari nortasun agiri nazionala jaulki dezala eskatuko dio ekimenak ► Ekimenaren indar handiena iraila aldera egingo da.**

Idoia Mendizabal

Bai, *Euskal Herriari* ekimena, «Euskal Herriko herritarren eskubideen eta eskubide politikoek» herri ekimena, abian jarri da Azpeitian. Orain hamabost egun ekin zieten sinadura

bilketari, herriko zenbait tabernetan batik bat, eta azoka egunetan ere mahaia plazan jarrita. «*Bai, Euskal Herriari* ekimena ezagutzera emateko atera ditugu mahaia kalera, ez da sinadura bilketa soil bat», adierazi du Iñaki Errazkin ekimeneko kideak. Herriko festak datozela-eta, egun eta une konkretu batzuetan mahaia kalera aterako dute, sinadura bilketaekin jarraituz.

Dei zabala

Ekimenekoek adierazi bezala, «sinadura bilketa lehen faseko lana da; itxura eman dezake udako kanpaina bat dena, baina aurrera begirako ekimena da. Abuztuko

oporrak eta gero, herriko jende desberdinarekin harremanetan jarri eta herrira begira dei zabala egiteko asmoa dago», dio Iñakik. Ekimeneko kideek eremu desberdinetan lanean dabilen jendea bildu nahi dute, eremu desberdinetan sinadura bilketa zabalduz eta ekimenari heldu diezaioten, iraila aldera indar-ahalegin bat egin asmoz. Jendeak ekimena askorik ez duela ezagutzen somatzen dela adierazi digu Iñakik.

Nortasun agiria

Ekimenak euskal herritarren herritartasun adierazpenari bidea irekitzea du xede, eta Udalbiltzari euskal nortasun agiri nazionala jaulki dezala eskatzea. «Pixkanaka gure eskubide zibil-politikoak lortu eta gero, herrian bertan gure eskubideak aurrera eramateko sortu da ekimena. Helburua, herrian pixkanaka eskubideok praktikan jartzen joatea da, erakundeak hori onartzera presionatuz. Ekimen honekin, Udalbiltzak euskaldunon errolda bat egitea eta guk ofizialtzat hartuko genukeen nortasun agiri bat onartzea eskatzen da. Azken finean, Udalbiltzak berak euskal nortasun agiriarena bideratzea eskatzen da, nazio mailako erakunde ofizial bakarra bera delako», azaldu digu Errazkinek, abian jarri den ekimenaren helburuaren berri emanez. ■

Harategia Odriozola

Harategi
Especializatua

 KALITATEA

Arana kalea, 14 - Urrut.: 943 81 10 15

ESTUDIO D3 ENRIQUE EGUINO
ARANA GOIKOA, 1 BEHEA - 20730 AZPEITIA - TEL.: 943 81 08 88

Barne Diseinua

‘Azpeitiko Jaiak’ liburua aurkeztu da

200 azpeitiar inguruk idatzi dute liburuan

► **Azpeitiko Jaiak** liburuak Azpeitiko festa nagusien berri ematen du ► **Lau ataletan banatua dago: Sansebastianak, Ihauteriak, Saninazioak eta Santotomasak** ► **Uztailaren 22an aurkeztu zen udaletxean**


Udala

Txakel komunikazio enpresan argitaratu eta egin den liburua berezitasun nagusia, 200 lagun baino gehiagoren —ia guztiak azpeitiarrak— partehartzea da. Bertan, lehen pertsona erabiliz, honokoek idatzi dute: festen antolatzaileek nahiz eragileek, historialariek, eta euren ikuspuntu berezi eta sentimenduak adierazten dituzten herriko kazetari gehienek.

Idazten ez, baina beste askok ere liburua erakuntzan parte hartu dute, euren argazkien ekarpenarekin. Izan ere, argazkiek liburua zati garrantzitsua osatzen dute. Hiru talde nagusitan sailka daitezke libururako erabili diren argazkiak: historia-argazkiak, testigantza-argazkiak eta irakurle goiarengan eragina bilatzen duten argazkiak. Argazkiekin batera, diseinua ere azpimagarria da, oso landua baitago 500 bat orrialdez osaturiko liburu mardul honetan.

Egungo festen islada

Liburuaren helburua ez da historia liburu bat izatea, gaur egungo festen islada izatea baizik. Hala ere, historia badu bere lekua liburuan, eta ezinbesteko erreferente bat osatzen du. Atal bakoitzaren hasieran, dagokion festaren historia eta gaur egun arte



Helburua egungo festen islada izatea da, baina historia erreferentea izan da liburua eraketan

Udala eta herriko enpresen laguntza ekonomikoei esker, 8.000 pezetako salneurria du

festa horiek izan duten garapena lantzen da: Azpeitiko bi dantborraden historia adierazten da; sokamuturraren azken bost belaunaldien laburpena egiten da; ihauteri eta saninazio jaien garapena ere bai; eta baita Santotomasen laburpen bat ere.

Enpresen dirulaguntza

Ezaugarri hauek betetzen dituen liburu bat aurrera atera ahal izateko, udalaren eta Azpeitiko enpresa gehientsuenen diru laguntzak behar izan dira. Laguntza hauei esker, liburuak bost mila pezetako salneurri berezia izan zuen aurkezpen ofizialean eta Izarraitz Pilotalekuan egin zen herri festan, eta zortzi mila peze-

tako salneurria izango du ka-
lean.

Herri festa Izarraitzen

Azpeitiko Jaiak liburuaren aurkezpena ospatu asmoz, Azpeitiko Udalak herriko jai nagusiak biltzen zituen ikuskizuna antolatu zuen uztailaren 22an, gaueko 22:30tan, Izarraitz Pilotalekuan antolaturiko herri festan.

Herri festari txupinazoarekin eman zitzaion hasiera, aurrez grabaturiko udaletxeko erlojuaren kanpaikadarekin eta suziriaren eztandaekin, hain zuzen ere. Alkateak eskenatokian bandera igotzen zuen bitartean, bertan jotzen ari ziren dultzainajole eta txistularien doinuak zabaldu ziren pilotalekuan. Erraldoi eta buru handiak ere bertan izan ziren. Horren ondotik, Julian Barrenetxea abesbatzak eta pilotalekuraino gertura-

tu ziren ikusleek Saninazio mar-txa abesteari ekin zioten, eta ondoren alkateak desfilea egin zuen gorporazioan. Gorporazioaren erretiratzearekin, Jose Luis Frantzesenaren gidaritzapean herriko bandak Saninaziyoetako zenbait doinu ezagun jo zituen —zezen plazan jotzen den zortziko funebrea, besteak beste—.

Haur eta helduen danborrada

Sansebastianen txandan, haurren nahiz helduen danborradak irudikatu ziren talde ezberdinen ordezkarien eskutik. On Cecilio eta On Baltasar, danborrada Azpeitira ekarri zuten apaizak, bertan izan ziren. Helduen danbor taldeen zuzendari lanetan Manuel Altuna *Kanpaxa* eta Pedro Illarramendi *Marttue*, Azpeitiko danborradako betera-

noak, aritu ziren. Oduan ere, herriko Bandak jo zituen danborradako doinuak.

Ttuntturroen desfilearen, trikitalarien, bertsolarien eta herri kirolarien zeregina izan zen Santotomasetako giroa Izarraitz Pilotalekuraino helaraztea. Era berean, Kaldereroekin, sokamutilekin, *Keuttin* azpeitiar ezagunarekin, Itsasi dantza taldeko artzai inudeekin eta txikiteo eleganteko desfilearekin irudikatu ziren ihauteriak.

Banderaren jeitsierarekin, eta denen artean *Agur Jaunak* abestuz, eman zitzaion bukaera herriko festen inguruko ikuskizunari.

Izarraitz pilotalekuraino inguratu zirenek herriko jai ezkerki gozatzeko aukera izan zuten. Euskal Telebistako kamarak ere bertan izan ziren herri-festa jasotzeko. ■



Txilin erakusketa

Azpeitian ● Ttuntturroek historian zehar izan zuten garrantzia aditzera ematen zuen erakusketa, Azpeitiko Udaleko Kultura Batzordea eta Hazparneko Eiartzea kultura etxeak antolatu zuten. Udaletxeko beheko solairuan kokatu zen, uztailaren 16tik 25era bitartean.

Erakusketa, 30 panelez osaturik egon zen, eta idatziak berriz, hiru hizkuntzetan jarri zituzten: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez, kolorezko 200 argazkirekin batera. Ituren eta Zubietako ttuntturroak, beste hainbat pertsonai, Europa osoko ttuntturroen adibideak, gaiaren inguruko ikerketak eta sinbologia, Euskal Herriko ttuntturroei dagozkien ohituren berri... eman zuen Txilin erakusketak. Santiyo eguneko Hazparneko ttuntturroen eta Azpeitiko ttuntturroen kalejirarekin eman zitzaion amaiera erakusketari.



AZPEITIKO UDALA

Azpeitiko Udalak diruz lagunduriko aldizkaria

Argitarapen honen ezizizko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

motxien

Xabier Azkargortak Euskadi Saria irabazi du

Xabier Azkargorta futbol entrenatzaile azpeitiarrak sari garrantzitsu bat irabazi berri du: Euskadi Saria. Eusko Jaurlaritzak banatzen ditu sari hauek, eta uztailaren 20an banatu ziren, Gasteizen. Kirolean egiten duen lan teknikoagatik eman diote saria Azkargortari. Beste sari tu batzuk ere izan ziren.


Itziar Goenaga bigarren txapeldun Iruñean

Goenaga haizkolari azpeitiarra bigarren urtez txapeldun izan zen Iruñeko San Fermín Torneoan. Itziar Goenagak aurreneko enborretik hartu zien aurrea gainontzeko haizkolariei, eta bigarrenari minutu eta 26 segundoko aldea aterazion.

Euzkitzek diskoa grabatu berri du

Pasa den uztailaren 14an bukatu zuen Xabier *Euzkitzek* diskaren grabaketa. Letragile eta bertsolari gisa eta trikitilariekin ere aritu ondoren, kantari hasi da Euzkitze, eta bere lehen diska grabatu du; berak jarri ditu hitzak eta ahotsa. Diska datorren udazkenean kaleratuko da. Baliteke irailaren bukaera aldera egitea diskaren aurkezpena.

erretiratutan



Barianteko bidegurutzean norabide aldaketa

Uztailaren hasieran bariantean zenbait norabidealdaketa egin ziren: Loiola Bideko errotonda itxi eta Sanjuandegiko bidegurutzean Jose de Artetxetik datorren trafikoarentzako norabidea aldatu da, bertako autoak errotonda itxian bira ematera derrigortuz.

Bariantean egindako aldaketak zenbait gidari despistatuta harrapatu zituen.

Urtero garai honetan antolatu ohi duten moduan, aurten ere herrikoek, Azkoiti, Zestoa eta Zumaiako ingurugiro taldekoekin batera, bizikleta martxa egin zuten Urola garbi baten alde, uztailaren 15ean. Herri herri eta bizikletan, herri bakoitzean kalte ekologikoa zerk eragiten duen azaldu zuten.

Urola garbi baten alde bizikleta martxa



Enparan atzean eraldaketa lanak



NEREA URANGA

Herriko jaien aurretik, herriko kale desberdinetan hainbat eraldaketa eta obra egin dira azken

asteotan, jaietarako leku desberdinak atonduz edota etxebizitza berrien inguruko kaleak eta aparkalekuak egokitu. Batzuk bukatuta, beste batzuk bukatzeaz daude. Argazkian agertzen den Julian Elorza aurreko kalea itxita izan da

auto eta oinezkoentzako. Eraberritu eta oraindik argiak jarri ez badituzte ere, ireki berri dute. Azoka plaza atzeko aparkalekuko zorua ere berritu egin dute, autoentzako aparkalekuak moldatuz.

motxean

Pako Aristi idazle urrestildarrak Venezuelari buruz idatzi du

Pako Aristi idazle eta kazetariak Venezuela-ko aro politiko berriari buruzko liburu bat kaleratu berri du Txalaparta argitaletxearekin. Urte hasieran Venezuelako egonaldian jasotakoa bildu du *Venezuela, iraultza isilaren hitzak* liburuan. Bertakoezin izandako elkarrizketak, Venezuelari buruzko dokumentazioa eta bidaiako esperientziak jaso ditu liburuan idazle urrestildarrak.



Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62



Fisioterapia zentrua

Errehabilitazioa

- Hezur hausturak
- Bihurrituak
- Tendinitisak
- Protesiak
- Gaisotasun neurologikoak e.a.

Masaiaik

- Terapeutikoak
- Kirol masaiaik

Arrabal 12 Azpeitia 943 815802



Lore Sortak

Koroiaik

Lore Apaingarriak

Etxeetarako


Zerbitzua Dugu




Telf.: 943 81 51 87

Loiola-Bide, 25 - AZPEITIA

ARGAZKIAK: ENEKOITZ ESNAOLA



Etzetik irteten ◆ Joxe Ramon Larrañagak etzetik oso goiz irteten du entzierroa, kamerarekin.



Goizeko paseoa ◆ Ez du gustukoa; gau-txoriez paso egiten du, urduri joaten baita toki bila.

Uztailaren 5ean arratsalde partean abiatzen da Joxe Ramon Larrañaga Azpeititik Iruñera, sanferminetara, eta hilaren 15a arte egoten da bertan, andrea eta bi alabekin, alokatutako etxe batean. Helburua: argazkiak ateratzea, batik bat entzierrokoak. Hiru urte daramatza *Diario de Noticias* egunkariarekin kolaboratzen, eta pasioz bizi ditu sanferminak. Argazkia baitu pasioa Azpeitiko Argazki Elkarteko lehendakari honek. Gustura ibiltzen da anbientien.

5:00. Normalean bost bat ordu lo eginda jaikitzen da Joxe Ramon; goizean goiz. «Neu bakarrik jaikitzen nauk. Andrea eta bi alabak lo geratzen dituk. Zortziak baino pixka bat lehenago jaikitzen dituk, entzierroa ikusteko. Ni ordurako ederki espabilituta egoten nauk».

5:15. Di-da batean gosalitzen du, «beti etxean. Kafesnetxo bat gailatekin eta bale. Argazkilari zenbaitek irteten dik gosald

gabe, baina gero, entzierroaren ondoren, latz gosalitzen dituk». Beti berdin janzten da: galtza zuriak, elastikoa ere zuria eta gaitetik jaka berde bat, poltsiko askokoa, karreteak eta sartzeko. «Hiru pareedo ditiat; hemen segituan zikintzen dituk arropak».

5:40. Iruñera familiarekin etortzen denetik, etxe bat alokatzen du, erdialdean. Eta goizean goiz etzetik irtetea helburu bat izaten du: entzierroan toki ona lortzea. «Etzetik irtetea buruan entzierroko toki

▶ **Sanferminetan, oinarrian, gauza bera dago egun guztietan, baina egun guztiak dira desberdinak** ▶ **Joxe Ramon Larrañagak esan dezake hori: egunero entzierroko argazkiak ateratzen ibiltzen da, baina egunero ditu egoera desberdinak** ▶ **UZTARRIA berekin egon zen, Iruñean, uztailaren 13an, goizez**

Enekoitz Esnaola / Iruñea

izaten diat, eta horretxan bila joaten nauk, urduri. Nahiz eta aurreko egunetik argazkilariok jakiten dugun zein tokitan egon behar dugun, hala esaten digutelako egunkarikoek, ni beti lehenago joaten nauk neure tokira. Normalean seiak hoge gutxirako irteten diat etzetik, gaur bezala». Eta orduan ez omen du ederki pasatzen, alde zaharrean gau-txorriak ondoan edukitze hori ez duelako gustukoa. «Niri ez zaidak askorik gustatzen alde zaharretik pasatu behar hori. Jendeak ka-

Goiz bat entzierroko argazki-giroan

Pasioz bizi du Joxe Ramon Larrañagak

5:50



Hesian, prest ◆ Goizeko seiak alderako egoten da dagokion hesian, kamerarekin pronto.

merekin-eta ikusten hau eta adarra jotzen dik, eta kabreatzeko arriskua ere egoten duk, sestraren bat edukitzeko arriskua ere bai, eta kamera zakutik hartzera joateko. Horrelakoetan onena paso egitea duk. Esan diat, urduri irte ten diat etxetik, toki bila, eta, pentsa, azpeitiarrei ere ez zieat kasurik egi ten; barkatuko zidatek».

5:50. Hamar minutu ditu, gehienez ere, etxetik entzierroko edozein tokitara. Gaur seiak hamar gutxirako hor dago, dagokion tokian, zezenplazako kailejoiaren sarrera-sarreran. Gaur, polizia foralek, akreditazioaz gain, nortasun agiria ere eskatu diote, «atzo mutil gazte bat biluzik ibili zelako plazan bertan eta horrek min ematen ziek hauei. Horregatik horrelako kontrola». Bi ordu pasatxo falta dira entzierroa hasteko. «Bai, oso goiz iristen nauk, baina ez nauk asperten. Nik beti irrati txiki bat ekartzen diat eta belarritakoekin Euskadi Irratia entzuten diat. Hor izaten duk gure herrikide

bat, Iñaki Elorza, entzierroa zuzenean ematen; zortziak laurden gutxian konektatzen ditek. Baina aurretik izaten diat jarria irratia, albisteak eta musika entzuteko. Denbora azkar joaten duk. Argazkilariorik kontu txikiak kontatzen ere egoten gaituk». Horrela, zortziak arte.

8:00. Berez 75. hesian du tokia gaur Joxe Ramonek, baina azkeneko unean esan diote pixka bat beherago jartzeko. Eta hor da, zezenen zain. Gero eta argazki-material hobe du. «Normalean bi segundo izaten dituk, segituan pasatzen direlako. Horregatik duk garrantzitsua material ona edukitzea. Hona estatu batuar argazkilari on horietakoak etortzen dituk, lehiaketan eta parte hartzera. Oso mutil irekiak dituk, eta haietako batek ekarri zidak kable bat, eta hori oso baliagarria zaidak argazkiak azkar ateratzeko. Nik orain bi segundoan 36 argazki ateratzen ditiat», dio entzierroa hasi baino pixka bat lehenago.

8:03



Argazki pila ◆ Bi segundotan pasatu ohi dira zezenak, eta 36 argazki ateratzen ditu.

JOXE RAMON LARRAÑAGA

Joxe Ramon Larrañaga:

“Goiz iristen nauk tokira, baina ez nauk asperten; irratia entzuten diat”

“Udaletxe Plaza duk leku onena, baina nik ez diat toki finkorik nahi izaten”

“Zaila duk entzierroan eskusiba lortzea”

8:03. Zezenen tropela ia hiru minutura heldu da zezenplazako kailejoi pareira, Joxe Ramon dagoen tokira, eta gaurkoan ere bi segundotan pasatu dira; baina zezen bat geratu da atzean, kailejoiko jaitsieran, urduri, hesiei adarkadak eman eta eman. Ar-

gazkilari azpeitiarrak egin dizkio argazki eder batzuk, baina beste munduko gauzarik ez. *Izan ere*, azkeneko zezen horrek ez du inor harrapatu, Joxe Ramonen eta bere lagun *zoritxarrerako*. «Nik egia esango diat: nik zezenak jendea harrapatzea nahi izaten diat; ez nik bakarrik, nire lagun hauek ere bai. Badakik, sokamuturrean bezalaxe».

8:15. Entzierroa bukatzean, Gaztelu Plaza du beti hurrengo gunea, han elkartzen direlako *Diario de Noticias*-eko argazkilaria; hamabost bat. Bertan ematen dizkiote argazki-erroiluak egunkariko arduradunari, Iñaki Bergasari. Zein ote dute tokirik onena entzierrorako? «Onena? Argi aldetik igoal Udaletxe Plaza duk onena. Neuk ez diat nahi izaten toki finkorik, aldatuz ibiltzen nauk. Hemen lanean hasi nintzenez, *'a mi cambiame'*, esan nioan arduradunari». Santo Domingon egon, Estafetan egon edo dena delako lekuan egon, argazkirik onenaren bila joa-

8:15



Gaztelu Plazan bilera ◆ Entzierroa bukatutakoan bildu egiten dira, erroiluak entregatzeko.

8:25



Ezagunekin topo ◆ Autora bidean Lalo Moreno dobladorearekin egon zen (eskuinekoa).

ten dira. «Baina oso zaila duk eksklusiba lortzea. Orain, hori bai: heuk bakarrik baldin baduk egundoko argazkiren bat, argazki hori saltzen diok agentziren bati eta milioiak irabaziko dituk. Gero lanera etorriko ez nauk ba! Iaz, dios, bat mundiala atera nian, baina beste batek hobe zian eta hari eman ziotean», dio irribarrez.

8:25. Behin erroiluak entregatuta, gosaltzera abiatzen dira denak ere. Zezenplaza atzean du autoa Vicente Larunbe argazki-



JOXE RAMON LARRAÑAGA

Sanferminetako «ateak ireki» zizkion argazkia

Hiru urte daramatza Joxe Ramon Larrañagak argazkiak ateratzen sarferminetan *Diario de Noticias* egunkariarentzat, baina orain dela lau urtetik ari da han argazkiak ateratzen, bere kabuz joan baitzen orduan. «Nik asko ezagutzen diat Iruñea, gaztetan hemen egin nitian-eta estudioak. Sanferminetan alde zaharreko Casa Sixton lan egindakoa ere banauk. Behin soldadutza bukatu eta Pepe Gili kamera txiki bat erosi nioan, baina ez nian izaten aukerarik

sarferminetara argazkiak ateratzera etortzeko, lanagatik. Irakasle hasi nintzenez, ordea, behin horrelaxe andreari esan nioan gogoia nuela txupinazora etortzeko. Udaletxe Plazan balkoi bat alokatu eta buruan nian argazki bat atera nian [goian ageri da]. Eta gero ezustea: neuk irabazi txupinazoko nazioarteko lehiaketa! Horrek ireki zizkidan sarferminetako ateak», dio Joxe Ramonek.

Izan ere, saria hartzera joan zenean *Diario de Noticias*-ekoak joan zitzaiz-

kion ea hurrengo sanferminetan beraiekin kolaboratzea gustatuko al litzaiokeen galdezka. Eta Joxe Ramonek baietz, «jakina». «Dirua, dirua, ez ditek diru asko ordaintzen, baina horren partez balkoietako paseak, zezenplazakoak, Udaletxe Plazakoak eta abar ematen ditiztek, eta horrek ez dik preziorik».

Orain bi urte kaleko lehiaketa irabazi zuen, eta orain zezenarena nahi du. «Baina dios, ezin diat lortu».

8:45



Gosari ederra ◆ Bapo gosaltzen dute argazkilariak, 9:00ak aldera; orduantxe lasaitzen dira.


lariak eta harekin abiatu da Joxe Ramon. Gutxi hitz egin dute entzierroaz; gehiago beste kontuez. Zezenplaza parean Lalo Moreno, entzierroko dobladorea ikusi du Joxe Ramonek, eta, galanta da: ezaguna du hura ere. Diosala beroa egin dio. «Urteak dituk ez nintzela Lalorekin egoten. Batera ikasi genian hemen, Iruñean». Ikasle baino dobladore hobea omen da Lalo Moreno; toreatzaile ere probatu zuen, 34 urterekin hartu zuelako alternatiba. Orain dobladore, lehen toreatzaile, gaztetatik Joxe Ramonen laguna, «eta betidanik Gaztelu Plazako La Perla hoteleko semea. Ondo bizi da».

8:45. Uharten gosaltzen dute argazkilaria hauek, Don Carlos hotelean. Iruñetik gertu dago, autoz hamar minutu pasatxora, Burlata eta Atarrabia pasatu ostean —bidenabar esan Miguel Indurainen gurasoen baserritik gertu dagoela—. «*Qué queréis? Ajoarriero? Callicos? Rabo de toro?... De entrada*

un caldico?...», galdetu du kamareroak. Jendea gose da eta han atera dizkiete tripakiak, ajoarrieroa... Joxe Ramonek salda eskatu du lehendabizi, eta geroko «*un poquico*» jan nahi du, «*Jefe, has oido, no? Un poquico*»; pare bat arraultza, hirugiharra eta toma-tearekin dira *un poquico*. Bukaeran kafea ere hartu dute. Bapo daude, patxandan, entzierroko tentsiotik libre. Detaile batek deitzen du atentzioa: Joxe Ramon da kuadrilako izarra; UZTARRIAREKIN solasean egon den bitartean, lagun jatorrek hiru bat aldiz eskatu diote 'Joserra-ri' —hala deitzen diote— hitzaspertura hurbiltzeko. «*Tranquillos, colegas, que enseguida os dará guerra*».

9:45. *Diario de Noticias*-era abiatu dira denak. Uharten bertan dago. «Gaur zortea izan diat. Gaur laboratorioan tokatzen zitean lan egiteko, eta igoal eguerdiko hama-biak arte bai egon behar lanean. Baina heu etorri haiz eta laster joango gaituk hemendik». Aurreko

9:45



Egunkarira bisita ◆ Goizeko lanarekin bukatzeko, lantokira bisita: *Diario de Noticias*-era.

Azaroan erakusketa Antxietan

Ez da geldirik egotekoa Joxe Ramon Larrañaga, eta azaroan erakusketa bat egingo du herrian. Hain zuzen ere, Antxietan Etxean. Sarferminetako argazkiak erakutsiko ditu, dituen «one-nak», denak ere zezenekin eta txupinazoa-ekin lotutakoak.

egun batean ateratako argazkiak bilatu nahi ditu Joxe Ramonek, argazkilaria hauek dena gorde nahi dutelako, izan ere. Eta bere ustez aurkitu ditu. Egunkariaren egoitza uztera doala argazki-arduradunak galdetu dio ea aurkitu al dituen argazki horiek, eta Joxe Ramonek baietz, hauek direla. Orduantxe zorte txarra: argazkiak arduradunarenak izan! «la ederra egin diat orduan».

10:30. Bost ordu eta gero, etxera itzultzeko garaia, autoan, Vicente Larunberekin. «Egunkariak eta ogiak neuk eramaten ditiat etxera, eta orduantxe lasaitzen nauk pixka bat. Dutzatu, bizarra moztu, eta entzierroa ikusten diat; andreak beti grabatzen zidak entzierroa. Gero egunkariak irakurtzen ditiat. Lau: *Diario de Noticias, Diario de Navarra, Gara* eta *Egunkaria*. Sanferminetako kontuak irakurtzen eta ikusten ditiat, batik bat entzierroetako argazkiak». Orduan bukatzen da Joxe Ramonen eguneko lehen etapa; Joxe Ramon argazkilaria etapa, hain zuzen. Gero Joxe Ramon senar eta aitaren etapa hasten da. Baina, harritzekoa, argazki kamera poltsikoan duela. «Hala ere, lehen aldean lasai ibiltzen nauk kamararekin; lehen arratsaldean ere ibiltzen nituan erreportaiak-eta egiten. Orain ez. Beti diat kamera soinean, sanferminek gauza askotarako ematen dutelako, baina lasai, gustura». Anbientien. ■

Ihesaldia eguzki bila

Azpeitiarrok oporretarako Mediterraneo kosta dugu gustokoena

► Penintsulako kosta da azpeitiar gehienek oporretarako aukeratzen duten lekua
 ► Agentziek antolatutako bidaiak dira gehien eskatzen direnak
 ► Gero eta gehiagok hartzen dituzte oporrak banatuta, eta ez jarraian

Leire Larrañaga

Uztaileko azken egunak eta abuztuko lehenak festetan atseden handirik gabe ibili ondoren, *estampidaz* aterako gara herritik, desiratutako opor lasaien bila. Herria zaintzen geratzen diren gutxiek *western* filmeetako paisaiatz gozatuko dute, kaleetan inor gutxi eta behi galduren

batek nondik irtengo duen zain. Hala dio Charo Martinezek, Barcelo agentziako langileak: «Azpeitiar asko ateratzen da kanpora abuztuan. Denak festak amaitzeko zain geratzen dira, gero oporretara irteteko».

Eguzki bila hondartzara

Azpeitiko agentziek jakinarazi digutenez, azpeitiar gehienak Mediterraneo aldera joaten dira, eguzki bila. Lurdes Iturriak, Eroski Bidaiak-eko langileak, honokoa esan digu: «Famili giroan eta bikote lasaiak Mediterraneoko kostaldera joaten dira gehien, batez ere Salou, Girona eta Castello aldera. Bestalde, Benidorm betiko destinoa da. Eta irtetara ere gero eta jende gehiago joaten da, gehienbat Mallorcara».

Gazteak berriz, saninaziyueta-ko parrandekin nahikoa ez eta Ibiza, Lloret... aldera joaten dira, egunez eguzkitan eta gauzez diskoteketan ibiltzera. Eta Port Aventura-ko benetako *estampida* probatuko dutenak ere ez dira gutxi izango. Baina eguzki bila urrunago joaten denik ere bada, Karibe aldera eta Kubara, Dominikar Errepublikara eta halako lekuetara. Paraje haietan lainorik ez nonbait, eta *lorentxok* gustora azaltzen omen du aurpegia.

Bidai konbinatuak

Hala ere, badira hankaz gora eguzkia hartzen egotearekin nahikoa ez dutenak, eta bidai konbinatuak hautatzen dituztenak. Hau da, egun batzuk bazterrak ikusten eta gainontzeko-



Senegalera egin zuteneko bidaietan.

ASIER ARANBARRI

Vietman, Senegal, eta aurten India-Nepal

Herritar gehientsuenen joera oporraldian penintsulako hondartzetako eguzkia gozatzea dela esan dugu; baina badira urrunagoko lurraldeetara joaten diren azpeitiarrok.

Asier Aranbarri eta Mikel Alberdik, azken urteetan, lurralde txiroak eta desberdinak ezagutzeko asmotan egiten dute oporraldietarako plana. Vietnam eta Senegalen pasa zituzten azken bi abuz-



Mediterranea aukeraten dute azpeitiarrak.

ESTEBAN ALDALUR

ak deskantsatzen pasatzen dituztenak. Urola Bidaiakeko Sara Arrietarentzat, «bidaia konbinatuetan gehienbat New York eta Dominikar Errepublika aukeraten dira. Kruzeroak eta Thailandia-eta horrelako herrialde exotikoetako egonaldia eztei-bidaietakoek egiten dituzte».

Beste herrietako paisaiatz gozatu eta kultura ezberdinak ikusi nahi dituztenen artean, bestalde, Tunisia, Egipto, India, Nepal, Italia, Holanda, Grezia, Senegal, Eskandinabia eta Suitza dira ohiko herrialdeak.

Antolatuta edo ez

Oporraldian bazterrak ikusi eta beste kulturez bustitzea erabakitzen dutenen artean badira hegaldia baino hartzen ez dutenak. Batez ere penintsulaz kanpoko bidaiak aukeratzeko dituzten ibiltariak, gainontzekoa bere kontura erabaki eta loturirik gabe bidaiatzea gustoko dutenak dira hauek. Gehienek berriz, ez dute erreparurik kolore deigarriko eguzkitakoa darman emakume edo gizon lirainaren atzetik kale eta museotan gora eta behera ibiltzeko, oporraldian.

Aurretik prestatuta

Oporretarako egunak prestatzeak ere bere lana eta buruhaustea ematen ditu. Honela, Maite Lazkanok, Halconeko langileak, adierazi digunez, «asko jada urtarrean informazio eske hurbiltzen dira». Bestalde, badira internet eta bestelako informazio iturrietara ere jotzen dutenak, zer ikusi edo nora joan erabakitzeko. Esan, bidaiaria agentziak aste santu ondoren hasten direla erreserbak egiten. Baina azkenengo egunetan ibiltzen denik era bada, Maitek azpimarratu digunez: «Badira bi edo egun bat lehenago etortzen direnak. Iaz bat motxila eta guzti etorri zen agentziara».

Oporrak urtean zehar

Azken urteetako joera oporraldia zabaltzearena da, gero eta jende gehiagok oporrak uztailean edo irailean hartzen baititu. Eta badira oporrak zatikatuta hartzen dituztenak ere. Ondorioz, oraindik abuztua bada ere jende gehien mugitzen den hilabetea, gero eta gehiago dira beste hilabeteetan ere kanpora joaten direnak. ■

tuetako oporraldia; aurten berriz, India eta Nepalera joango dira. «Berdin zaigu nora joan, toki eta bizimodu ezberdinak ezagutzeko asmotan leku desberdinetarako erreserbak egin genituen otsailean. Gero, lekua eta aukerarik dagoen lekua aukeratzeko dugu», diote.

Bidaiatzeko hegazkinek txartelak bakarrik hartzen dituzte. Gero, euren kontura bertako jendearen etxeetan eta hotel «merkeenetan» moldatzen dira. Beti oporraldia pasa behar duten herrialdeko gida liburuak erabiltzen dituzte, lekuak bisitatzeko eta ibilbidea erabakitzeko. Herrialdeetan denetariko ibilbideak ezagutzen badituzte ere, batez ere leku turistikoetan ibiltzen dira

gazte hauek: «Turistak beti eta edonon izaten dira, eta euskaldunak edonon aurkitu ditugu. Jakin egin behar da mugitzen. Geu ere, batez ere leku turistikoetan ibiltzen gara, zirkuitu turistikoetan, bestela ibiltzeko zailtasun gehiago daude. Vietnamdar bat ezagutu genuen eta aberasgarria gertatu zen, bere familia ezagutu eta leku desberdinetan ibilginen».

Lekuetako ohiturak «errespetatu» behar direlakoan daude Asier eta Mikel, eta bertakora «moldatu» behar dela diote. Era horretan, jaki ugari ere probatu dituzte: «Vietnamen kangurua zelakoan bazkaldu genuen; gero esan ziguten herrialde hartan ez zegoela kangururik. Han txakurrak-eta

jaten dituzte... badugu erreze-lorik zer ote zen. Ona zegoen eta merkea zen. Medusa moduko bat ere jan genuen gordinik».

Herrian saninaziyo jaietan murgilduta gaudenean ekingo diote bidaiari Asier eta Mikelek, beste bi lagunekin batera. Hegazkinez Delhira joango dira. Handik euren kontura Nepalera abiatuko dira, eta berriro Indiara hegazkinez, abuztuaren bukaeran etxeratzeko. «India ezagutzeko gogoia beti izan dugu», dio Mikelek.

Dena dela, herrialde desberdin baterako bidaiari ekin aurretik, jada datorren urteko gogoan dute; urte hasieran erreserba pila bat egin, eta gero-gerokoak. ■

Zuk lan eta nik jai

Saninaziyuetan lanean jardungo dute



► Musikari, udaltzain, erraldoi eta buruhandi, zezenzale eta tabernariek, makina bat lan egingo dute festetan
► Hala ere, lan egin arren gozatzeko aukera izango dute ► Batzuk ondo pasatzeko, beste-ek lan egin behar

Nerea Uranga

Leire
Sarasua
Musika bandakoa

«Jaietan egun osoa kalean ematen dugu»

Goizean goizetik Herriko Musika bandak kalea hartzen du Saninaziyuetan. Goiz eresiarekin hasita, jaietako hainbat unetako bigarren mailako protagonistak izaten dira musikariak. «Jendea ez da asko ohar-


tzen, baina egun guztia kalean ematen dugu Saninaziyuetan; eskerrak hiru egun besterik ez diren», dio Leirek.

Unerik gogokoena txupinazoarena du, jende ugari parte hartzen duelako: «Plaza beteta ikusi eta

denak elkarrekin momentu horren zain; gainera, nolabait parte hartzen dut».

Jaietako unerik gogorrenak bezperan parranda egin eta goizean jeiki beharrekoak dira Leireren ustez. «Nik pare bat ordu behintzat lo egin behar izaten ditut; baina hala ere gogorra egiten da goizean jeiki, diana jo eta

«**Bandarekin egunez dagoen mugimendua ikusten da**»



Erraldoi eta buruhandiekin, erraldoi bezala ateratzen da egun, baina orainartean sorginarekin atera da.

Buruhandietan sorgina, demonioa, Santxo Panza eta On Kixote eta erraldoietan txinoa, emakume beltza, arabea eta emakume

Oihan
Aizpuru
"Buruhandia"

«Umeak gogorak daude; orain, hartu ere egiten dute»

rubiye ateratzen dira. Oihan Aizpuru orain artean Sorginaren buruarekin atera da, eta gaur egun erraldoiekin ateratzen da. Erraldioen artean bada astunagoa denik, eta txandaka piasitzen dituzte «Astunenak txinoa eta

a r a b e a
dira; arinena, berriz, rubiye da. Lehen arropa zaharrek arinagoak ziren, iaz

arropa berriak egin zizkieten, eta gehiago pisatzen dute. Dezente pisatzen dute», dio Oihanek.

Erraldoi eta buruhandiak Saninaziyutako txupinazoaren unean ateratzen dira. Eta ia ordubetean ibiltzen dira, kale bueltan eta jendartean. «Pisua eraman behar da, gero jen-

deak ere askotan traba egiten du, beroa pasatzen da... aurreko egunean juerga egin bada, ederki antzematen da».

Hasiberriak, buruhandiekin ibiltzen dira, esperientzia hartu bitartean. «Erraldoia eroritzeko arrisku

gehiago dago eta ikasi bitartean buruhandiekin ibili ohi gara».

Umeak dira erraldoi eta

buruhandien zale amorratuak. Kale hestuak dira berriz, Elizkalea eta Errebala, buruhandien gustokoenak: «Umeak gogorak, azkarrak daude; orain, hartu ere egiten dituzte. Batzuk nahiko lotsagabeak dira, egia esan. Eman eta eman, eta hala ere segi».

«**Juerga egin bada bezperan igartzen da**»



Hamar-hamaika urte dira Leire Sarasua Herriko Bandako partaide dela. Zeharkako-txirula jotzen du.

korporazioarekin elizara, ordu erdi libre, ondoren berriro jo, arratsaldean korridetara... Gogorra egiten da. Baina erritmo horretara azkenean ohitu egiten da bat», dio Leirek. Bandakideek haina jaiak ezagutzen dituen gutxi izango da, jaiak oso-osorik ezagutzen dituztelako, bertatik bertara, Leirek azaldu bezala: «Jaietan bandarekin egunez dagoen mugimendu guztia ikusten da, eta gaez parrandan. Baina bandan ez banu joko, egunez lo egingo nuke».


Parrandazalea Saninaziyuetan lo gutxi eginda ibiliko da, baina baita lanean arituko direnetako batzuk ere; hauetakoak dira tabernariak. Jaiak hasi eta, egunak joan eta egunak etorri, lana berdin-berdin egin behar izaten dute tabernariak. «Oso gogorak egiten dira Saninaziyuek, lan asko egin behar izaten da. Jende asko izaten da, agian gehiegi. Lo gutxi egiten dugu, eta gogorra gertatzen da lanerako», dio Angelek. Kanpotik etortzen den jendeak ohitura berriak ekartzen ditu herri-rra; herrian tabernetako errege diren kalimotxoa,

«Jai hauek gogorak dira lanerako»

zerbeza eta Gin-kasa, edari berriekin nahasten dira: «Hiru edari horiek dira *sota, caballo y rey*, baina kanpokoek zerbeza eta edari desberdinak eskatzen dituzte. Kanpoko jende ugari ibiltzen da Saninaziyuetan. Hemen dena *bestiala* da, ematen uu Gernikako txosna batean ari zarela lanean».

Egunean zehar, parrandarako ez dute denborarik; izan ere, eguerdian taberna ireki eta arratsaldean izaten dituzten une lasaiak gaue-rako gauzak prestatzeko aprobetxatzen dituzte. Angelek daukan Saninaziyuetako oroimen bakarra lana da.

Jaietan merenge eta saltsa doinuak izango dira nagusi tabernetan. «Apiriletik entzu-



Pikua tabernako jabea da, eta hamairu urte egin ditu tabernari lanetan. Saninaziyuetan egunero ariko da barra atzean.

Angel
Ainziburu
Tabernaria

«Dena 'bestiala' da, kanpoko jende asko etortzen da»

Jose Manuel
Odriozola
Zezenzaleen batzordekoa

«Torero onenak zein diren zaletuak badaki»

Zezenzaleen batzordekoek Saninaziyuetako zezenketak prestatzen makina bat lan egiten dute. Torreatzaileekin kontratuak egin, zezenak aukeratu eta Saninaziyuetan dena ondo



ten den *La Bomba* eta *Meneito* izango dira gehien festetan entzungo eta jarriko ditugun kantuak», azaldu digu tabernari honek.

Angelentzat jaietako egunik onena azkenengo da, azkenengo lan eguna duelako oporren aurretik, abuztuan ia hilabete osoa taberna itxita izaten baitute. Deskantsurako, akaso.

atera dadin ziurtatu... «Torea-
tzaile onenak zein diren za-
letuak badaki, baina arazo
ekonomikoak, zezenak... Bi-
tarteko asko izaten dira torea-
ro bat edo beste bat kontra-
tatzean. *El Juli* atera dene-
tik, ikaragarri igo du torea-
tzaileen prezioa. Ponce
orain bi urte baino %50

gehiago kosta-
tzen da. Ordea,
Juliak plazak bete
egiten ditu», dio
Jose Manuelek.
Zezenak aukera-
tzean ere kontu

izan behar da: «Ez da erraza
asmatzea, adi egon behar
da, eta denboraldian zer ga-
nadu ibili den ondo aztertu».

Azpeitiko zezenplazak ba-
du berezitasunik: «Zezen-
plazaren berezitasun bat,
beti izan ohi duen txukunta-

sun, seriotasuna da. Eta
inon ez dagoena hirugarren
zezena hil ondoren bandak
jotzen duen zortzikoa da.
Plaza egin aurretik, zeze-
nak nobillero bat hil zuen
Azpeitian, eta Silvestrek
jarri zuen zortzikoa. Herri
honek badaki gauzak gor-
detzen», dio.

«**Hemen
bakarrik
jotzen da
zortzikoa**»

Aurten presiden-
tzian aholkulari
berria izango da:
Jesus Ferro do-
nostiarra. «Ahol-
kulariaren papera
oso garrantzitsua

da, belarriak justu emateko.
Lehenengoa ikusle goak es-
katzen du, eta bigarrena
presidentziak; kasu hone-
tan, teknikoa eta *entendi-
do*a ematea garrantzitsua
da, plazari kategoria ema-
ten baitio».

**Zezenzaleen
batzordeko
kide bezala,
aurten hemere-
tzigarren feria-
ren antolaketa
parte hartu du
Jose Manuelek.**



**Aurten hirugarren urtez egingo du lan
Inmak udaltzain bezala. Gustora dago,
aurten arratsalde bezala.**

**Inma
Aramendi**
Udaltzaina

«**Festa lasaiak dira,
bihurrikeriren bat
gertatzen bada ere**»

Festak hasi baino le-
hen festak pasatzeko
desiatzen dago Inma Ara-
mendi, lan egin behar due-
lako batik bat. Bestela, Sa-
ninaziyo festak gogoko di-
tu.

Udaltzainei festetan era-
bat aldatzen zaie lana,
egunerokotik ateratzen di-
ra. Hala ere, festetan bai-
no aurreko egunetan lan
gehiago izaten dute udal-
tzainek. «Aurreko presta-

kuntza lanak gehiago dira,
atrakzio desberdinei lekua
eman, pitxiak saltzera
etortzen dire-
nen artean le-
kuak banatu.
Trafiko aldetik
ere dena alda-
tzen da, gero
zezenetarako
ere prestaketak egin be-
har izaten dira», azaldu di-
gu Inmak. Festetan egiten
duten lan nagusia zain-

«**Aurreko
prestakuntza
lanak
gehiago dira**»

tzarena da, eta lanean ere
denbora gehixeago pasa-
tzen dute: «Festetan-eta
lan bat hasi ba-
duzu, hura bu-
katu artean jar-
dun behar izat-
en duzu».

Ordea, arra-
tsaldeko lanor-
duetan lan egitea suerta-
tuz gero, parranda eta fes-
tez gozatzeko aukera han-
diagoa izaten dute udal-

tzainek. Horretan suerte-
ko da Inma, aurten arra-
tsaldeko txandan lan egin-
go baitu.

Aurten, festetan ibiliko
den jende andana «izuga-
rria» izango dela uste dute
udaltzainek.

«Saninaziyoak lasaiak
dira; gauza txikiak gerta-
tzen dira, lapurreta txikiak
-eta, bihurrikeriak gehien-
bat. Kotxeak gaizki apar-
katuta...», dio Inmak.

Haitzuloko sorgina

Ion Pozo ■ AGZ? taldeak antolatutako ipuin erotikoen lehiaketan irabazle



Gogoan ditut oraindik uda bero hartako pasarteak, Karibeko lurralde eder hartan. Bertan, haizeak itsaso usaina zeraman, eta gaueko izarrek ilargiaren maitale izkutuak ziruditen. Giroa sorginduta zegoen, eta hau izango zen, beharbada, hango biztanleen pozaren eta anaitasunaren arrazoia.

Bidaiaren lehen astea bete zenean, lurralde hartako zenbait leku ospetsu ezagutu ondoren, herri txiki batetara heldu nintzen. Arratsaldea zen, eta bero jasanezinarri txupito batekin aurre egingo nion itxaropenaz, ekipaia ostatuan utzi eta taberna baten bila abiatu nintzen.

Herriko kaleak xumeak ziren, leiho handi ugari zituzten etxez osatuak, zaharrak eta ia kolore gabekoak. Etxe hauetako askoren atarian agureak ikus zitezkeen, marihuana txirria eskuan, kalean barrena igarotzen ziren neskaten iztar eta bularrei begiratzeaz oraindik aspertu ez zirenak, iraganeko oroitzenak burura ekartzen zizkietelako edo.

Herri hartako taberna bakarra aurkitu nuen, bide luzeegirik egin gabe. Bertan bazen jendea. Halako batean, barraren bestaldetik ahots ezti batek zer edan nahi nuen galdetu zidan. Begirada altxatu nuen, hotzikara batek gorputz osoa freskatu eta berpiztu zidan. Aingeru bat zen nire aurrean nuena, aingeru beltzaran bat. Begietatik hasita, sua zuen hauen barnean. Ezpainak haragitsuak, nireen janari izan nahi balute bezala, edo agian, zerbait gehiago. Lepo leun hartan sortutako izerdi tantak bularretarainoko bidea garbitzen zioten, bukaeran titi-puntak ukitzearen sari gorena gogoan. Bular bakoitza ederki imajina nezakeen, ezer gutxi izkututzen zuen bainujantzi bustiaren azpian; beteak ziren, eta borobilak oso, nire amets izkutuenetan agertzen zirenak baino harrigarriagoak. Bigunak izan behar zuten gainera, eta ondorioz, sentikorak, aingeruak egiten zuen mugimendu bakoitzean goitik beharaino egiten baitzioten dardar, nik ere hauekin batera egiten nue-

larik. Nire eskuen babesean nolako itxura ederra hartuko zuten bururatu zitzaidan, eta honekin batera zakila tentetzen hasi. Orduan, ene burua kontrolatu behar nuela pentsatu nuen, baina, saiatu nintzen arren, azkenik bere hankarrea ikusi nuenean, zabal, bi iztar luze disdiratsu haien artean, edozein kalibretako kertenari barruraino sartzen utziko ziokeelarik, ezin izan nion gehiago eutsi eta komunera joan behar izan nuen, bere galderari erantzunik eman gabe. Ia batere eragin gabe irten zuen nire larritasunak, eta segituan irten nuen nik ere komunetik, askoz lasaiago. Barrara joan eta aingeruari nire ihesaren zergatia argitzeko gezur txiki bat bota eta gero, txupittoa

eskatu nion. Luze ihardun genuen hizketan, herri hartan ez omen zen eta atzerritar gehiegi ikusten. Nuen dena eman nuen hizketaldi hartan, eta azkenean, sari bezala edo, izena Nemi zuela esan zidan, eta gauean, hondartzan izango zen festan ikusi nahi ninduela, berarekin dantza egiteko. Nire neurrigabeko pozak, zakilaren zirrikitutik irten zuen berriz ere, ostatura bueltatu eta komunera sartzearekin batera.

Bizarra kentzen, dutxatzen eta orrazten inoiz baino denbora gehiago igaro ondoren, maletan nuen kondoi kaxa hartu, eta hondartzako festara abiatu nintzen, presaka, nahiz eta garaiz nenbilen, nire urteetako haragiaren ametsak bete zitzakeen aingeru hura ikusteko gogoan bainuen. Beno, lehenbizi behintzat, ikusi.

Hondartzara heldu nintzenean, gaua zen jada, eta bertako iluntasunari su handi batek egiten zion aurka. Herritar guztiak, tartean tabernan ikusitako asko, su honen epelean bildurik zeuden. Erritua moduko bat ospatzera zihoazen.

Denak ziren adiskide, neska eta mutil, zahar eta gazte. Niri ere, bi agurek, han atzean zelatan ikusi nindutenean, jaian parte hartzeko gonbitea luzatu zidaten, eta nik, onartu egin nuen. Emakume zaharrenek etxean prestatutako opil afrodisiakoak eraman zituzten, eta gizonak ronaz eta marihuanaz arduratu ziren. Ondoan, eserita nuen marinela zaharra bere abenturak kontatzen ari zitzaidala, rona esku batean eta opil magikoa bestean, giroa gero eta gehiago berotzen ari zela ohartu nintzen, baita neure barnean ere, eta ez zen bertan egin zuten suaren ondorioz. Neska ederrenek, bongo eta tanborren erritmoa jarraituz, suaren inguruan, itsasoa lekuko zutela, beren gorputz malguak mugimendu esanguratsuenekin mugiarazten zizkien dantza bati ekin zioten. Mutilak, hauei begira, beren hankarteko giharre lotia nola esnatzen zen konturatzen ziren, eta honela, marihuanaren keaz inguratutik, larru gosea areagotzen joan zen denen artean. Jende artetik neska batek irten zuen besteekin batera dantza egitera. Berehala ezagutu nituen haren bihurtune debekatuak. Nemi zen.

Bere dantzari begira, hiru bat aldiz hustu nuen nahigabe nire hzai itsaskorra, agian opilaren laguntzaz. Ustekabean, bere pausoak nigana zuzendu eta eserita nengoen lekuraino etorri zen, dan-



Ion Pozo Agirretxe
Aurten 18 urte beteko
ditu. Bere idazlanak
lehiaketa askotara
aurkeztu izan ditu:
Urruzuno, amodio
gutunehar lehiaketa.
AGZ?! taldearen ipuin
erotikoen lehiaketa
jaso zuen lehenbiziko
saria. Orain pare bat
hilabete eskolarteko
olerki lehiaketa ere
Ion Pozoren olerkia
izan zen sariduna.

tzarien taldetik irtenaz. Eskutik heldu eta altzarazi egin ninduen. Nik, egoera haren aurrean, dantzan ez nekiela esan nion, baina ez zen dantzan egitea berak nahi zuena. Bere eskua disimulo handiz galtzontziloetan behera sartu zidan, eta laztan labur bat egin zidan nire sexuan, ni lehertu beharrean jartzeari lortuz. Ingurukoak beste dantzariekin kontzentratuegiak zeuden, eta ez ziren gure ihesaz ohartu.

Itsasoak mendeetan zehar moldatutako haitzulo izkutu batera eraman ninduen, non olatuen soina

eta ilargairren argia besterik ez baitzegoen. Hantxe zutik, elkarri begira, ezapin haragitsu haiek gogoz musukatu nizkion, bularrak baiñujantziaren azpitik eskua sartuaz estutzen nizkion bitartean. Bainujantziaren goiko aldean kendu nion, eta imajinatu bezain ederrak agertu zitzaizkidan bi bekatu haiek. Nire ahoko tresneria ezpainetatik beherantz hasi zen mugitzen, lepoa kontu handiz igaroz, eta bularretaraino heldu zen. Eskuen laguntzaz, barrenetik helduaz, titipuntak xukatu nizkion. Gogor-gogorak zituen, exzitazioaren ondorioz. Ni neure lanetan ari nintzela, berak nire gerrikoa eta abotoiak askatu eta poliki-poliki, eskua lehen izandako lekuan sartu zuen. Bila ari zena aurkitu zuenean, tinko heldu eta mugimendu azkarrak hasi zituen, gora eta behera, esku bedeinkatu harekin. Beste eskuko behatzak gonaren azpikaldetik bere aluaren barnera sartuak zituen, nire adarrean zegoen eskuarekin egiten ari zen mugimendu berberak eginaz.

Geroago, soinean geratzen zitzaizkigun arropa urriak erantzi genizkion elkarri, erabat biluzik geratu ginelarik, aurrez aurre. Makurtu egin zen, eta nire arkatzari heldu zion, segundu batzuek geroago ahoan sartzeko. Ikaragarria izan zen, ezpainen presioa eta miharen erritmoa hobetu ezinezkoak baitziren. ■

bide

Sukaldeko altzariak
eta
horman sartutako
armairuak
neurritara.

Landeta Auzoa - AZPEITIA
 Tel. eta Faxe: 943 81 17 47

Joaquín Castaño

Arana, 14 - 1º Tel.: 943 15 03 98

ARLO DESBERDINETAN DIPLOMATUA:

- MASAIA TERAPEUTIKO ETA KIROLEZKOA
- REFLEXOLOGIA PODAL ETA BIZKARREZURREKOA
- DRENALINFATIKOA
- NATUROPATIA (IRIDILOGIA - FITOTERAPIA)
- HOMEOPATIA
- AJUSTE NEUROLOGIKOAK
- ANGINENTZAKO MASAIA ETA TRATAMENDU BEREZIA



PEUGEOT

AIZPURU
AUTOAK

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59

Faxe: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

Kontua da...


Turismoari begira



Imanol Elias

Historialaria

Kontua da, azken denboraldian ahalagin guztiak egiten ari dela herriko udala, Azkoitikoarekin batera, uda garaian Loiolara hurbiltzen diren turistak bi herrietara hurbiltzeko. Kontua da, gutxi gorabehera 300.000 bisitari izaten dituela urtean Loiolak, eta haietatik oso gutxi hartzen dutela Azpeitirako bidea. Baina kontua da, zerbait



oSasuNa

Sardina zaharrak

Egun sukaldeetatik baztertu samartuta dugun sardina, *klupeidos* familia-koa dugu.

Sardina mota asko dago, baina denak arrain urdinak dira; hau da, duten jateko guztiatik %5 gantza da, grasa. Hori harrapatu berritan. Gero, sardinak gatzatu egiten dira kupeletan, eta keetan ura kentzen zaie. Horixe da gure herrian *gailegoen kapoia* deitu izan duguna.

Gure janaridendetan egundoez dira faltatu, kaxa biribiletan eta sarritan lehenbiziko ilaran.

Sardina zaharrek hiru akats dituzte: lehena, oso gaziak dira, tentsioarekin arazoak dituztenentzat arriskutsua; bigarrena,



Julian Bereziartua

Medikua

ixtura denez frogatua dago keetutako jakiek minbizia errazago sortarazi dezaketela naturalek baino; azkenik, azido uriko asko du.

Gainerakoan, osasungarria da, dituen gantzak gehienbat saturatugabeak dira eta odolaren kolesterola jaitsierazten dute; bitamina eta gatz mineralen berriz, aberastasun nabarmena du. Balio energetiko handia du, 100 gramo sardina zaharrek dozena erdi arraultzak haina kaloria ditu.

Jaki goxoa, jateko gogoa ematen duena eta oso indar handikoa dugu, baina osasun betean daudenentzat egiten da, ez urdaila ahula dutenentzat.

KALORIAK
Balio energetiko handia du, 100 gramok dozena erdi arraultza haina kaloria du.

SuKaldaRitZa

Esparrago beteak



Parrilan 20-25 minutu eduki zapoa, buelta ta buelta. Gatza parrilan dagoela bota. Zapoa parril-


letik atera eta ontzi batean jarri. Zartagi batean olio, pipermina eta baratxuria jarri eta frijitu. Ondoren zapoari

oSasuNa

Gorputza garbi jaiak eta gero

Saninazio jaien ondoren gorputza barrendik garbitu ahal izateko, honako garbiketara egitea gomendatuko nuke:

Lehen egunean, egun guzian zuku naturalak, fruta, jogurra eta *Natusor-4* infusioa hartuko ditugu. Bigarren egunean, gosaltzeko laranja eta limoi zukua, eta infusioa



lortzea nahi bada behintzat, aurrez jakinarazi behar zaiela zer aurki dezaketen herrian.

Horretarako dira zabaldurik zenbait liburuxka, argazkiz beterik gehienak, turisten artean herria zerbait ezagutzeko gogo sortzeko lagungarri. Beraietan ditugu, Loiolako Santutegia ezezik, inguruko zenbait etxe, alde zaharra, parroikiko bataialekua, Egibar baserria, Olatz, Madalenako ermita eta erietxea, trenaren museoa, komentuak, Antxietta, Enparan...

Kontua da, ordea, eskaintzen zaizkien liburuxkak irakurri eta herriratzeko gogo sortzen zaionak, noiz izan dezakeen aukera toki horiek ikusteko, gehienez itxirik izaten baitira.

Kontua da, bestalde, bakarren bat ikusi daitekeela, zati batean, kanpotik begiraturik; horietako bat da garbitokia. Begiratzeak bakarrik, ordea, atzerakada eman dezake, zikina dagoelako.

BISITARIAK

300.000 bisitari izaten diturtean Loiolak, eta oso gutxi hartzen dute Azpeitirako bidea

Ongi dakigu arrainak prestatzeko erabiltzen dela, langintza bikaina zalantzarik gabe; baina txukunago egon dadin, gauzak egoki antolatzea beharrezkoa da. Lan horretan direnek tresnak jasotzeko leku bat

izatea ez legoke gaizki...

Beste kontua da, herriratu-tako turistek, ondoren, beraien diruetatik zerbait herriko merkatarien eskuetan utzi nahi izatea...

Koro Alberdi / Ongi Etorri Jatetxea

Zapoa ■ Gatza ■ Ozpina ■ Baratxuria ■ Pipermina ■ Perexila ■ Olio.

osagaiak

ozpina eta perrexila bota. Eta zartagiko saltsa zapoari bota. Eragin pixkat ontzia, eta gero, bertako saltsa berriro zartagira bota. Minutu erdi eduki fri-

jitzen saltsa eta azkenik zapoa saltsarekin ondo busti. Era honetan, mahaira ateratzeko prest dugu zapoa.

On egin dagizuela!

edango ditugu; bazkaltzeko eta afaltzeko berriz, fruta, entsalada, jogurra eta infusioa. Hirugarren egunetik zazpigarrenera, egunero gosalorduan zukua, frutak eta infusioa, eta bazkalordu eta afa-lorduan berdina gehi nahi den platera.

Zazpi eguneko gorputz garbiketa honek azido, toxina,

gibela, giltzurrunak eta hesteak garbitzen ditu. Bestalde, sabel eta hesteetako liseriketant eta diuresian mesede egiten du.

Jai zoriontsuak eta garbiketa on bat!

Joaquín Castaño

Iridiologo-Naturopata

EuSKaRa

Euskara dendetan

Aitor Amuti

Arantza Azpillaga

Euskal Filologian lizentziatuak

Azkenaldian kaleetan dendetako erakusleihoen ikusmiran ibili bazarete, aldaketa txiki bezain esanguratsua ikusiko zenuten: lehengo *abierto-cerrado* orain *irekita-itxita* agertzen da gehienetan. Bejondeiola, beraz, dagokionari! Ahalegintxo-(txo) bat nahikoa izan

ZENBAKIAK

Dendetan gehienok zenbakiak gazteleraz esaten ditugu

da horrelakoak entzunga? Oraindik behintzat ez.

Merkealdi garaian ez digu zoritxarrez begiko minik egiten *rebajas*

kartelak, nahiz eta *merkealdiak* (*beherapenak*!?) askoz erakargarriagoak iruditu. Bestalde, *horario*-dun dendek ez

daiteke gure moduko asko pozteko, baina kontua ez da dagoenarekin konformatzea.

Dendetan ordaintzerakoan gehienok zenbakiak gazteleraz esaten ditugu: «Zenbat da?» «Zientobeintisiete». «Hogei duro badauket, baño beintixiete ez». Inor harritzen al

dute *ordutegia* dutenek baino ordu gehiago sartzen, ez eta *cerrado por vacaciones* dagoena *oporretan* dagoena baino itxiago egoten ere. Zorionak, beraz, *merkealdietan*, denda *irekita*, gauzak *ehun eta hogeita zazpian* saltzen dituzten dendari guztiei!

Gazte gunearen okupazioa

Asteburua bertan igaro eta gero,
kaleratuak izan ziren

► **Uztailaren 15ean Gaztetxe zaharra okupatu zuten gazteek** ► **Alkatearen aginduz, bi egun beranduago kaleratuak izan ziren** ► **Gazteek mobilizazioe ekin diote**

Nerea Uranga

A lokairuaren aukera alde batera utzi eta udalarekin harremanetan hasi zen Azpeitian Gazteok Zer?! taldea. Harremanen ondotik «erantzunik jaso ez» eta hirugarren bide bati ekin zion uztailaren 15ean Azpeitiko Gazte Mugimenduak. Gaztetxe ohia, erdi-kalekoa, okupatu zuten larunbat arratsaldean. Berrehun bat gaztek hartu zuten parte gaztetxearen okupazioan, taldetan antolatuta. Bertako hormak bota eta barrura sartu ziren. Eneko Iburguren Gazte Mugimenduko kidearen esanetan, «okupatu baino aste bat lehenago gazte talde bat biltzen hasi eta gazte gunea hartzeko asmoak lantzen hasi ginen.

Bezperan 50 bat lagun bildu eta gero, talde desberdinetan lanak banatu genituen: talde teknikoa, materialaz eta lokalaren garbiketaz antolatzen arduratuko zena; eta harremanetarako taldea, komunikabide eta udaleko arduradunekin harremanetan jarri zena».


Arratsaldean, hormak bota eta gero, barrua garbitu eta asanbladan bildu ziren gazteak, aurrera begira zer egin erabaki eta hurrengo egunetan lokalaren birmoldaketari ekin asmoz. Komunikabideetara informazioa bidali eta udaleko ardura-dunei deitu zieten gaiaz hitz egitekotan. «Udaleko hiru alderdietako ordezkarietara deitu genien, eta astelehena arte, elkarrizketan ez hastea erabaki zen», dio Iñaki Azkuek.

Igandean, asanbladan erabaki bezala, lokala atontzen hasi ziren, garbiketarekin jarraitu eta hormak margotuz.

Asteburua eta gero, udaltzaingoaren bitartez, eguerdia baino lehen lokala uzteko agindua jaso zuten. Gazte Mugimendu- →

Gaztetxe ohia zeneko hormak bota eta gazteak lokalean bildu ziren. Bi egun pasa eta lokala hustu behar izan zuten, asanbladak udaletxe azpian eginez. Plazan, prentsaurrekoan, gazte lokalaren egoeraren berri eman zuten.




**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

LUBA
- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- ASEGURAK
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Empanan kalea, 30
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



Euskal Herria,34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Larrialdiak:
943 81 50 72

Ekain
ALBAITARI KLINIKA



Azpeitia
Kimu bat

UROLAKO JARDINERITZA

Azpeitia - Urrestilla bidea
Tel./ Faxa: 943 15 00 85
AZPEITIA



Ertzaintza etorri eta lokala hustu behar izan zuten gazteek.

ION ARANBURU

koen kideen esanetan, «goizean udaltzainak lokala ixteko agindua zegoela esan zigun, lokala eguerdirako ez bazen husten Ertzaintza etorriko zela. Esan eta izan, eguerdian Ertzaintza etorri zen alkatearen ahozko aginduz. Lasai-lasai irten, eta plazan asanblada konbokatuta genuen». Astelehen eguerdiartean gazteak udaltxera abiatu ziren lokalaren ixteari buruz alkatearekin hitz egitekotan. Eneko Ibarpurenek

lokala hustu eta gero udaleko ordezkariekin izandako bilera azaldu digu: «Tentsio una egon zen, eta eguerdiko ordu-bietan alkatearekin bilera bat lotu zen. Bilerara gazteen alde-tik hiru ordezkari joan ginen. Arratsalderako lokalak ikusteko gelditu ginen, baina alkateak esan zigun ez zuela alokatzekotan zegoen lokalik aurkitu», .

Alkatearen erantzuna jaso eta gero gazteak mobilizatzen hasi ziren, gazte lokalaren beharra

eskatuz, Iñaki Azkueren esanetan: «Manifestazioak eta udal ordezkarien etxe aurreko konzentrazioak egin ditugu; guri ere deserosoa egin zaigu. Baina, gu hortik bidaltzea eta herrian gazte lokalik ez izatea bakar batzuen erantzukizuna da».

Herriko zenbait sektoreen babesarekin, pasa den uztailaren 22an Gazte Mugimenduak manifestazioa egin zuen gazte lokalaren alde. ■

MITXEL AROZTEGIA S.L.



Barruko ate eta tolesgarriak
Ate trinko eta blindatua
Oimaulki parketa eta frisoak
Aramairu horma sartuak
Leihoak - Harotzlanak

Arretxe kalea, 19 - Landeta Industrialdea
Tel./Faxa: 943 81 01 65 - Apdo. 12 - 20730 AZPEITIA



Foruen Ibilbidea, 3
Tel.: 943-816107

- Zurezko altzarien polikromatua.
- Metala, tela, eskaiola eta poliuretanoan margotzea.
- ... eta beste hainbat eskulan.

Matrikula zabalik urte osoan

JONS - MARGAR



estetikako
azken
teknikak

Enparan, 15-1
Tel. 813898



Prentsaren aurrean aurkeztu zen txapelketa.

NEREA URANGA

Erremonteak lekua du festetan

I. Inazio Deuna txapelketa jokoan da

- ▶ Saninazio jaietan lehen profesionalen erremonte txapelketa jokatu da
- ▶ Abuztuaren lein jokatu dira finalak ▶ Herriko bi gazteak debutatu dute

Nerea Uranga

Herriko jaietako egitarauan erremonteak eta esku pilotak ere izango dute euren lekua. Udaleko Kirol Batzordeak Galarretako arduradunekin batera antolatuta, Lehen Inazio Deuna erremonte txapelketa jokatu da Izarraitz pilotalekuan. Garai batean egin ohi zen txapelketa berriro anto-

latzeari ekin zaio. «Maiatza eta ekaina bitartean antolatu genituen erremonte txapelketek oso harrera ona izan zuten», azaldu zuen txapelketaren aurkezpenean Alejo Urangak, udaleko kirol batzordeburuak.

Inazio Deuna txapelketan herriko bi erremontistak jokatu dute aurrenekoz: Xuban Oiarzabal *Matxin III.*-ak eta Igor Martinez *Martinezek*, herrian bertan aurkeztuko diren erremontista gazteek. «Azpimarratzekoa da Matxin III eta Martinezen debuta. Bi azpeitiar gazteak beren herrian hastekotan dira erremontean. Gaur arte Matxin bakarrik izan da bere herrian, Azpeitian, estreinatu dena, lehena eta bakarra. Orain hiru izango dira. Erremontea gustora egon daiteke; hemen erremontea etxean bezala sentitzen da, eta orain herriko festa nagusietan sartu da», izan ziren Juan Antonio Ercilla Galarretako arduradunaren aurkezpeneko hitzak.

Esku pilota

Izarraitz Pilotalekuan, jaietan, profesional mailako eskuzko pilota partiduak ikusteko parada ere izango da. Bertan, Asegarce eta Aspeko pilotariak arituko dira San Inazio bezperan eta egunean. «Saninazio-etarako egitarau pilotazale eta askotarikoa bildu dugu, pilotarekin benetako konpromisoa hartuz. Hurrengo hilabeteetan ere antolatzen jarraitzeko asmoa dugu, indar eta ilusioz beterik, lanerako gogo biziz. Jaietarako antolatu duguna, pilotaren alde egiteko dugunaren adierazpena da», azaldu zuen aurkezpen egunean Alejo Uranga zinegotziak. ■

**Egin
publizitatea
UZTARRIAN**

Teléfono zenbakia:
15 03 58 (edo utzi mezua)

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

OLAKOR
gozotegia

Urbite Auzunea, 1 - 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) - Tfno.: (943) 81 46 65

zer dago gaizki, zer faltan, zer soberan?

Adi-adi egin so eskuineko argazkiari, eta bertan zer dagoen gaizki, zer faltan edota zer soberan asmatu behar duzu. Zeure ustez asmatzen baldin baduzu, adierazi akatsa boligrafoz, moztu orrialde hau eta irailaren 10erako bidali gutuntxo batean helbide honetara: Uztarría Kultur Koordinadora, posta kutxa 227, Azpeitia.

Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefonoa:


Argazkiko akatsa:

Irabazleak **Ongi Etorri Jatetxean** bi lagunentzako afaria izango du, eta UZTARRIAREN elastiko bat ere jasoko du.

aurreko argazkia



...eta soluzioa



irabazlea: **Miren Arbil Izagirre**



Afaria eta elastikoa

Miren Arbil Izagirre izan da bederatzi-garren irabazlea. Sari gisa, bi lagunentzako afaria izan zuen Zubi Zaharren (bertakoak ere ageri da argazkian), eta UZTARRIAREN elastiko bat ere jaso zuen.



Manuel Salaberria

BEGIKO SENDAGILEA

BEGIKO MIKROKIRURGIA:

- KATARATA. MIOPIA. HIPERMETROPIA.
- BEIRAKARA-ERRETINAKO GAISOTASUNAK
- Erretina askatze.
- Makulako gaisotasunak.
- Erretinopatia diabetiko konplikatua.



Esther Usandizaga

FAMILIAKO MEDIKUNTZA
ETA MEDIKU OSTEOPATA

- Azterketak (Analisiak...).
- Arreta jarraia.
- Etxera ere joaten gara.

OSTEOPATIA

- Bizkarrezurraren errehabilitazioa (gerrrialdekoa, bizkarraldekoa, zerbikala).
- Gihar eta artikulazioetako arazoak.

Loiola auzoa, 25-B 1.º K

Tfnoa: 943 15 17 52

20730 Azpeitia-Loiola

izan beharreko telefonoak

Erakunde edo toki publikoak	
Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Nekazal Ganbara	81 46 56
Zerga Bulegoa	81 13 68
Enplegu Batzordea	15 03 00
INEM	15 04 02
Eusko Jaurilaritza	15 16 57
Urkome	81 65 00
Lapatx Zaborteia	81 55 05
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza	85 10 00
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	81 25 55
Ingurugiro Etxea	81 24 48
Osasuna	
Anbulategia	81 51 00
(larrialdiak)	81 12 01
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	81 32 97
DYA	81 38 49
(Donostia)	46 46 22
Komunikabideak	
Uztarria (berria)	15 03 58
DV	15 09 94
Herri Irratia	81 44 58
Kaito TB	81 53 35

farmaziak gauez

- Uztailak 31tik abuztuaren 6ra**
Zulaika . Hartzubia
Hiribidea, 20. 150334.
- Abuztuaren 7tik 13ra**
Azpiazu (Azkoitia).
Kale Nagusia, 66.
85 29 89.
- Abuztuaren 14tik 20ra**
Beristain. Urbitarte, 3.
81 19 49.
- Abuztuaren 21etik 27ra**
Jaen (Azkoitia).
Ibaiondo, 28. 85 06 60.
- Abuztuaren 28tik irailaren 3ra**
Garcia. Enparan, 29.
81 12 74.

Alderdi politikoak	
EAJ - PNV	81 55 70
HB - EH	15 12 15
EA	81 00 11
Sindikatuak	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28
Ikastetxeak	
Betharram	81 16 68
Ikasberri	15 12 46
Iraurgi	81 02 10
Jesuitinak	81 22 49
Karmelo Etxegarai	81 26 65
Milagrosa	81 63 80
Urola DBH	15 02 28
Garraioak	
Aldalur	85 27 18
EuskoTren	15 06 77
La Guipuzcoana	85 11 59
Pesa	21 26 99
Piper U. Elkartea	85 25 87
Taxiak	81 13 07
Kultura - Euskara	
Euskara Patronatoa	81 19 47
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Uztarria (berria)	15 03 58
Antxieta Etxea	81 35 40

gune publikoen ordutegia

- Udaletxea**
Astegunak: 9:00 - 13:30.
Larunbatak: 9:00 - 13:00.
- Ixpixioa**
Egun osoz irekita.
- Igerilekua**
Astelehenak: 14:00 - 21:00.
Beste astegunak: 7:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.
- Kiroldegia**
Astelehenak: 9:00 - 13:00, 15:00 - 21:00.
Beste astegunak: 15:00 - 21:00.
Larunbatak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.
- Udal Liburutegia**
Astegunak: 10:00 - 13:00, 16:00 - 20:00.

autobusak

JOATEKO	ITZULTZEKO
<p>Azpeitia-Zestoa-Donostia Astegunak: 6:50 (1), 7:50 (1), 8:10 (3), 9:00 (1), 10:00, 13:10 (1), 14:00 (1), 15:10, 16:10, 18:45 (2), 19:45 (2). Larunbatak eta abuztuko astegunak: 7:50, 10:00, 13:40, 15:10, 16:10, 19:15. Ilgandek eta jaiegunak: 15:10, 19:15. Enpresa: La Guipuzcoana. Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 2: Sarrera Amaratik; 3: Eskola egunetan soilik.</p>	<p>Donostia-Zestoa-Azpeitia Astegunak: 7:50, 8:50, 11:05, 12:05, 13:05 (1), 14:05 (1), 15:05, 17:30, 18:30 (1), 19:30 (1), 20:00 (3), 20:30. Larunbatak eta abuztuko astegunak: 8:50, 12:15, 14:30, 16:00, 18:00, 20:00. Ilgandek eta jaiegunak: 18:00, 20:00. Enpresa: La Guipuzcoana. Oharrak: 1: Eskola egunetan 'Este-tik' pasatzen da; 3: Eskola egunetan soilik.</p>
<p>Azpeitia-Eibar-Bilbo Astegunak: 6:30, 13:00, 18:30. Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30. Ilgandek eta jaiegunak: 9:30, 19:30. Enpresa: Pesa.</p>	<p>Bilbo-Eibar-Azpeitia Astegunak: 10:30, 14:30, 21:00. Larunbatak: 9:30, 14:30, 18:30. Ilgandek eta jaiegunak: 9:30, 12:30, 21:00. Enpresa: Pesa.</p>
<p>Azpeitia-Bilbo-Leioa Astegunak: 6:35, 7:20, 13:30. Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.</p>	<p>Leioa-Bilbo-Azpeitia Astegunak: 13:00, 14:00, 18:00, 19:00, 20:00. Enpresa: Piper Unibertsitarien Elkargoa.</p>
<p>Azpeitia-Azkoitia Astegunak: 6:55, 7:25, 7:50, 8:25, 9:25, 9:35, 10:15, 10:25, 11:25, 11:50, 12:25, 13:25, 14:25, 14:35, 15:25, 16:25, 16:35, 17:25, 18:25, 19:15, 19:20, 19:25, 20:25, 22:25. Asteburuak eta jaiegunak: 7:00, 7:40, 8:40, 10:15, 10:40, 11:20, 12:45, 13:20, 14:40, 16:40, 17:05, 17:20, 18:40, 19:15, 19:35, 19:40, 21:35, 21:40. Enpresa: EuskoTren.</p>	<p>Azkoitia-Azpeitia Astegunak: 6:30, 6:45, 7:00, 8:05, 8:15, 9:00, 10:00, 10:30, 11:00, 12:00, 13:00, 13:15, 13:45, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00. Asteburuak eta jaiegunak: 6:45, 7:15, 9:15, 10:15, 11:00, 11:35, 12:15, 13:35, 14:15, 15:30, 16:15, 17:35, 18:00, 18:15, 20:00, 20:15, 21:15, 21:55. Enpresa: EuskoTren.</p>
<p>Azpeitia-Zestoa-Zumaia Astegunak: 6:30, 7:10, 8:15, 9:10 (1), 10:10, 11:10, 12:10, 13:10, 14:10, 15:10, 16:10, 17:10, 18:10, 19:10, 20:10, 21:10. Asteburua eta jaiegunak: 7:25, 9:25 (2), 10:25, 11:45, 12:25, 13:45, 14:25, 16:25, 17:45, 18:25, 20:25, 21:25, 22:05. Enpresa: EuskoTren. Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.</p>	<p>Zumaia-Zestoa-Azpeitia Astegunak: 6:00, 6:30, 7:00, 8:00, 9:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00 (1), 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 22:00. Asteburua eta jaiegunak: 6:35, 7:15, 8:15, 10:15, 10:55, 12:15, 12:55 (2), 14:15, 16:15, 16:55, 18:15, 16:55, 18:15, 19:15, 21:15. Enpresa: EuskoTren. Oharrak: 1: Aizarnazabaldik pasatzen da; 2: Larunbatetan Aizarnazabaldik pasatzen da.</p>
<p>Azpeitia-Zestoa-Zarautz Astegunak: 6:40, 8:30, 10:40, 13:25, 15:10, 18:10. Asteburuak eta jaiegunak: 15:40, 18:10, 20:10. Enpresa: EuskoTren.</p>	<p>Zarautz-Zestoa-Azpeitia Astegunak: 7:15, 9:00, 11:15, 14:00, 16:00, 18:45. Asteburuak eta jaiegunak: 16:30, 19:00, 21:00. Enpresa: EuskoTren.</p>
<p>Azpeitia-Zumarraga (hospitala) Astegunak: 6:55, 8:25, 10:25, 12:25, 13:25, 14:25, 16:25, 18:25, 19:25. Asteburuak eta jaiegunak: 7:40, 8:40, 10:40, 12:40, 14:40, 16:40, 18:40, 19:40. Enpresa: EuskoTren.</p>	<p>Zumarraga (hospitala)-Azpeitia Astegunak: 7:35, 9:30, 11:30, 13:30, 14:30, 15:30, 17:30, 19:30, 20:30. Asteburuak eta jaiegunak: 8:45, 9:45, 11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 20:45. Enpresa: EuskoTren.</p>
<p>Azpeitia-Errezil-Tolosa Astegunak: 6:55, 13:55. Asteburuak eta jaiegunak: - Enpresa: EuskoTren.</p>	<p>Tolosa-Errezil-Azpeitia Astegunak: 9:30, 18:30. Asteburuak eta jaiegunak: - Enpresa: EuskoTren.</p>

uztailak 29

uztailak 29 (larunbata)

- **USO-TIROA.**
Lapatxeko zelaietan uso-tiroa. 11:00etan.
- **TXIRRINDUA.**
XX. Saninazio txirrindu proba, bigarren urteko kadeteentzat. 17:00etan.
- **DANTZA.**
Dantza solteko III. txikien txapelketa. Hamazortzi bikotek parte hartuko dute. Enparantza Nagusian. 19:00etan.
- **MANIFESTAZIOA.**
Euskal Presoen eskubideen aldeko manifestazioa. Igerileku aurretik irtenda. 19:30etan.
- **AFARIA.**
Herri afaria presoen eskubideen alde. Berdura plazan. 21:00etan.
- **KONTZERTUA.**
Rock kontzertua Tiobibo eta Patateko herriko taldeak eta Anestesia, Enparantza Nagusian, 23:30tan.

uztailak 30 (igandea)

- **TXUPINAZOA.**
Saninaziyo jaiei hasiera emanez, udaletxetik lehen suziria

botako da. Ondoren, herriko musika banda, Izarraitz Txistulari Taldea, Biasteriko dultzinariak eta erraldoi eta buruhandien kalejira. 12:00etan.

- **TXUPINAZOA TXOSNETAN.**
Jaiei hasiera emanez txupinazoa. Txosnetan. 12:00etan. Ondoren trikipoteoa herriko kaleetan zehar.
- **BAZKARI HERRIKOIA.**
Azpeitiko elkarteetako jendeak prestatuta bazkari herrikoia. Plazan. 14:30etan. Bazkalostean jokoak izango dira koadrila ezberdinen parte-hartzearekin.
- **SUZIRI JAPONIARRAK.**
Umeentzat jaialdi berezia. Enparantza Nagusian. 15:00etan.
- **ZEZENKETA.**
Saninaziyotako lehen korrida. Victoriano Martinen zezenekin eta Luis Francisco Espla, Jose Ignacio Ramos eta Jose Luis Moreno toreatzaleekin. 18:00etan.
- **KALEJIRA.**
Zezen plazatik irtenda Oria txarangaren kalejira. 19:30tan.
- **BEDERATZIURRENA.**
Julian Barrenetxea eta Parrokiko abesbatzak, organujole Maria Dolores Oteiza eta Jose Luis Frantzesenaren zuzendaritzapean, arratsaldeko otoitzak eta Salbea. Loiolako Basilikan. 19:30tan.
- **MUSIKA.**
Rustic Arlazon Band musika

- taldearen emanaldia. Olazko Amaren Plazatxoan. 22:30tan.
- **SUZKO ERROBERAK.**
Pirotecnia Zaragozana etxearen suzko erroberak. Loiolako ibilbidean. 23:00etan.
- **ESKU-PILOTA.**
Profesionalen esku-pilota partidua. Asegarceko pilotariak. Izarraitz pilotalekuan. 23:00etan.
- **MUSIKA.**
Golden Appel Quartet musika taldearen emanaldia. Enparantza Nagusian. 23:30tan.
- **ERROMERIA.**
Txosnetan erromeria Eztanda taldearekin goizalderarte. Gauean txaranga herriko kaleak alaituz.

uztailak 31 (astelehena)


- **GOIZ ERESIA.**
Herriko musika banda, Biasteriko Dultzainariak eta Izarraitz txistulari taldearekin goiz eresia. 9:00etan.
- **PROZESIOA.**
Prozesioa herriko kaleetan zehar. 10:30tan.
- **MEZA.**
Meza Santua, herriko apaizek eta Gipuzkoako gotzaiak emana. Julian Barrenetxea eta Parrokiko abesbatzak W.A. Mozarten *koronazio meza* eskainiko dute Maria Dolores Oteiza organujole eta Jose Luis Frantzesenaren gidaritzapean. Parrokian. 11:00etan.
- **KONTZERTUA.**

IREDE ESTETIKA



- + ESTETIKA OROKORRA
- + TATUALAK
- + MIKROPIGMENTAZIOA
- + SOLARIUM BONOIA (6.500)
- Azken teknologia:
- + LASER BIDEZ BEHINBETIKO DEPILAZIOA:
Ordaintzeko errezetasunak
- + MASAIA: - Linfatikoa
- Antizelulitikoa

ORDUTEGI JARRAIA (9:00-19:30)
Urbite 4, behea AZPEITIA
Tel. 943 15 15 09



IZARRAIZPE
IRAKASKUNTZA ELKARTEA

AZPEITIKO IKASTOLA KARMELO ETXEGARAI

Azpeititik kanpo bizi direnak ezin dira harpidedun izan

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)

Herriko musika bandaren kontzertua. Enparantza Nagusian. 13:00etan.

■ **SARI BANAKETA.**

1999.eko zezenketetako sari banaketa. Udaletxean. 13:30tan.

■ **JAIALDIA.**

Umeentzako jaialdia. Enparantza Nagusian. 16:00etan.

■ **KORRIDA.**

Sanchez Arjona anaien zezenak. Enrique Ponce, Manuel Caballero eta Eugenio Mora toreatzaileak. 18:00etan.

■ **KALEJIRA.**

Zezen plazatik irtenda Los Pasai txarangaren kalejira. 19:30tan.

■ **MUSIKA.**

Traviatta orkestaren emanaldia. Enparantza Nagusian. 20:30tan.

■ **AKELARREA.**

Txosnetan Akelarrea. 22:30tan.

■ **SUZKO ERROBERAK.**

Pirotecnia Astondoa etxearen eskutik suzko erroberak. 23:00etan.

■ **ESKU-PILOTA.**

Profesionalen esku-pilota partiduak. Aspeko pilotariak. Izarraitz pilotalekuan. 23:00etan.

■ **DANTZA.**

Brasilgo dantza taldearen emanaldia. Olazko Amaren Plazan. 23:30tan.

1 (asteartea)

■ **GOIZ ERESIA.**

Izarraitz txistulari taldeak, herri-

ko musika bandak eta Biasteriko dultzainarien goiz eresia. 9:00etan.

■ **HARRERA.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako agintariei harrera. Udaletxean. 10:30tan.

■ **MEZA NAGUSIA.**

Herriko apaizak eta Donostiako gotzaiak emanda meza nagusia. Julian Barrenetxea eta Parrokiko abesbatzak abestuta, Frantzesenaren *Emaguzu pakea* meza berria abestuko dute, organujole Mari Dolores Oteiza izanik eta Jaime Amenabarren gidaritzapean. 11:00etan.

■ **AURRESKUA.**

Itsasi dantza taldeak ohiko aurreskua dantzatuko die agintariei. Enparantza Nagusian. 13:00etan.

■ **JAIALDIA.**

Gaztetxoentzat parke bereziak eta jaialdia. Enparantza Nagusian. 16:00etan.

■ **KORRIDA.**

Zezenketa. Alcurrucenen zezenak. Finito de Cordoba, Miguel Abellan eta Julio Lopez *El Juli* toreatzaileak. 18:00etan.

■ **KALEJIRA.**

Zezenplazatik irtenda Txalaparta txarangaren kalejira. 19:30tan.

■ **DANTZALDIA.**

Indiana taldearekin dantzaldia. Enparantza Nagusian. 20:30tan.

■ **KONTZERTUA.**

Txosnetan kontzertu honoko hiru taldeekin: Dzar, Skalariak eta Bellum9. Kontzertua 22:00etan hasiko da.

■ **SUZKO ERROBERAK.**

Zamorano Caballerren eskutik. suzko erroberak. Loiola ibilbidean. 23:00etan.

■ **ERREMONTEA.**

Erremonte txapelketa. Izarraitz pilotalekuan. 23:00etan.

■ **DANTZA.**

Sahatsa dantza taldearen emanaldia. Olazko Amaren plazan. 23:30tan.

■ **KALEJIRA.**

Kalejira eta Incansables txarangaren kalejira. 3:30tan.

■ **ZEZEN ENBOLATUA.**

Zezenplazan, zezen enbolatua. 7:00etan.

■ **SUZIRIAK.**

Suziri eta danbatekoen bidez, herri jaiei amaiera. 8:30tan.

2 (asteazkena)

■ **FUTBOLA.**

Lagun Onak-Reala, Garmendipen.

24 (ostegana)

■ **KILOMETROAK.**

KMK'00en alde futbol partidua Frantzia-Euskadi beteranen artean, Zarauzko futbol zelaian.

UZTARRIAREN OHARRA TALDEEI: bidali zeuon ekitaldion berri honako helbide batera: 227 posta kutxa (Azpeitia), edo Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerria.

uZta i laabuZtua



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

AZKOITIAN ALTAMIRA AUZOAN ETA AZPEITIAN ESKLABATAN:

- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak**
 - Merkataritza
 - Arotzerien eta altzarien fabrikazio industrialak
 - Mekanika
- **Goi Mailako Heziketa Zikloak**
 - Administrazio eta finantzak
 - Zur eta altzari produktzioa
 - Mekanizazio bidezko produktzioa
 - Informatika sistemen administrazioa

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 Fax: 943 85 28 67
E-mail: azkoitia@uro-la.hezitek.net

Loiola hiribidea, 4 (Esklabak)
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 81 37 70 Fax: 943 81 66 20
E-mail: azpeitia@uro-la.hezitek.net

Perdillegi, 2
20720 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 02 28 Fax: 943 81 16 94



HORTZ KLINIKA

Dr. Antonio Rafaniello


- Odontologi Orokorra.
- Odontologi Estetikoak.
- Ahozko Zirujia.
- Inplante integralak.
- Protesis mugikorren sustutuzioa, protesis fijora.
- Pieza gabekoa, sustutuzioa pieza fijora.

Enparan n°8 - 1° Tel.: 81 67 36

Jaime Amenabar

Musikazalie.
Julian
Barrenetxea

abesbatzakue,
eta Zestoako
Amaldan'e
abesbatzan
abestean.
Beti
abeslari ibi-
liye da abes-
batza desber-
dinetan.
Baita musika
eta euskara
irakasle ere.



NEREA URANGA

"BETI GUSTAU ZITEN GEHIO KANTATZIE, INSTRUMENTUEK JOTZIE BAIÑO"

▶ Nola definitzek eure burue: musikazale, kantante, irakasle...?

Neure burue definitzen etzekiñet. Musikan betianik aritu naun, oine musika irakasle asmotan estudiantzen ai naun. Oñ euskara irakasten ai naun...

▶ Abesbatza batin baiño gehiotan habil, eztek hala?

Beti bat baino gehiotan ibili naun, musika eskolan, Gipuzkoko gazte abesbatzan... Beti gustau ziten bat baino gehiotan abestie.

▶ Ze ahotsetan abesten dek?

Ze korda?

▶ Ba, bai hori dek.

Baritonue naun.

"Festatan ezin den eztarriye zaitu, saiatzen gaitun baiño... onena bullaik ez ateatzie den"

▶ Hori ze korda dek, musikaz ezer gutxi dakigunontzat?

Oso grabie den, baiño bajo-bajue ez daukena.

▶ Kantau bai, baiño instrumentoik ez al dek iñoiz jo?

Nei beti gustatu ziten korue. Instrumentue geroa hartu niñenan, pianue, eta ez oso gustoa. Beti gustau ziten gehiyo kantatzie, instrumentuk baiño.

▶ Eta abesbatzak zuzentzien kontu hori?

Ba ikastarotan hasi nindunan... Gero, Nerea zeonan zuzendarri, lagun bat, eta honek sartu nindunan zuzentze kontuen. Bata bestien atzetik zetorren...

▶ Responentsabilitate handiye al dek koruek zuzentzie?

Bai, usteñet baietz. Prestaketa partikularraz gaiñ, geo korukin beakin ein ber den. Normalien, nik mezak eta zuzentzen dizkiñet, eta mezetako uniek-eta... Gañea, batzutan inkomodore bai, denak ni baiño zaharra-goak ditun...

▶ Bodatan kantatzeko talde batiñe ibiltzeaz?

Beste talde batek eziñ eta geu juteko-ta, hola hasi gindunan...

▶ Nola dik izena?

Cantabile, 'c'-rekin italianoa dela uste baitiñet.

▶ Eta hori?

Partiturak ekartzen diñe, nola kantau esatein, inter-

pretatzeko modue. Gañea izena bea politte den.

▶ Egunien zier, dutxan-ta kantatze al dek?

Keba, ez diñat abesten, etxien oso gutxitan abesten diñat. Examiñetan ta, oso-oso baju abesten jarduten diñat.

▶ Festatan eztarriye zaitzeko ze in ber dek?

Festatan ezin den eztarriye zaitu, saiatzen gaitun baiño... Onena bullaik ez ateatzie den. Saninaziyotan asko abesteñeu, iye egunero, ta azkeneako esaten dion eure buruari, bost axola zaidak! ■

UZTARRIAREN hiru ohar:

1. Bazkide izatea nahi baduzu, baina zure kontu korronteko zenbakia eman nahi ez baduzu, hemen daukazu UZTARRIAREN zenbakia, bertan 3.000 pezeta sar ditza-zun: 2101 0029 28 0122349624 (Kutxa). Izen-abizenak eta helbidea eman.
2. Azpeititik kanpo bizi den senide edo lagun bat baduzu eta hark UZTARRIA jaso nahiko balu, bidali haren izen-abizenak helbide hauetara: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre, edo 227 posta kutxa Azpeitia. Bestela, behean ageri den tabernan utzi. Edota bestela, utzi mezua 15 03 58 telefono zenbakira deituta.
3. Eman beheko datuen txartelen bat UZTARRIAN oraindik harpidedun edo bazkide egin ez den herriko senide edo lagun bati. Edozein txokotan behar du UZTARRIAK!



uztarrria

Azpeitiko herri aldizkaria

egin zaituz harpidedun ...doan!

Bidali hona datuak: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre, edo 227 posta kutxa Azpeitia. Edo Zuhatz tabernako kaxara bota.

Izen-abizenak (etxetik batena):

Helbidea:

...edo, lagundu nahi baduzu, bazkide izan zaituzke urtean **3.000 pezeta soilik!**

Bidali hona datuak: Julian Elorza Hiribidea 4, 2. ezkerre, edo 227 posta kutxa Azpeitia. Edo Zuhatz tabernako kaxara bota.


Izena eta bi abizen:

Helbidea:

NAN (DNI): Sinadura:

Kontu korronteko zenbakia (20 digito):

ONDŌ PASAŪ SAMIŅAZIŅĒKI



UROZA

UROZA isaja

Lokot

SINTE

OKATZ

URTIŅI

OKER

ARADNA

ELKRA

PIVA

NEUDA

FIDES

EPERA

ZUHAT

AMIA

KORRALE

EKE-ZARI